


# ttüpi-ttapa

1994ko abenduak 15 • 148. zenbakia

Elkarrizketa

**Iñaki IRIGOIEN**  
**anizfarrarekin**



AMAIURKO FAISAIK:  
**HEGATZEKO PREST**

# ABENDUKO ESKAINTZAK TELEBISTETAN

- ✓ SANYO 14" (37zm) Pal/Secam 36.900,- Pta. 1.557, Libera
- ✓ NOKIA / OCEANIC 14" (37zm)  
Pal/Secam 5 URTEKO GARANTIA 39.700,- Pta. 1.675, Libera
- ✓ DAEWO 21" (51zm)  
Pal/Secam 54.300,- Pta. 2.291, Libera
- ✓ NOKIA / OCEANIC 21" (51zm)  
Pal/Secam 68.200,- Pta. 2.878, Libera
- ✓ NOKIA / OCEANIC 25" (61zm)  
Pal/Secam/Stereo 5 URTEKO GARANTIA  
Kablerik gabeko aurikularrak dohainik 114.600,- Pta. 4.835, Libera
- ✓ SONY 25" (61zm) KV-X2503  
Pal/Secam/TXT/Stereo 141.700,- Pta. 5.980, Libera
- ✓ SONY 29" (71zm) KV-X2903  
Pal/Secam/TXT/Stereo 159.700,- Pta. 6.738, Libera

1994ko ABENDUAREN 31 ARTE BALIATZEN AHAL ZARA AUKERA HONETAZ, AITZINETIK EXISTENTZIAK BUKATU EZ BADIRA

RADIO BIDASOA, Eztegara 14 BERA • ☎ 948-630377 ☎ 19-34-48-630377

# Aukera paregabea

Edozein autorendako  
**GURPILAK**

**5.615** pezetatik  
aitzinerat  
IVA  
barne

ETA GAINERAT...  
DOHAINIK

PARATU, BERDINDU ETA  
NIBELAK IKUSKATU

BEREHALAXEKO HARRERA, AITZINETIKO ESKAERARIK GABE  
ORDU BETEAN BAINO FITEAGO

Abenduaren 31ra arteko eskeintza

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**  
RENAULT • ELIZONDO

Frantziarako Bidea, 57. Km. Tf. 58 04 31/6



CONTINENTAL

NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK
145/70/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.615	6.270	7.040	7.915	9.465

## DATUAK

❖ Iñaki Irigoien 20 urteko Aniztarra da.

❖ Sortu berria den Baztandarren Biltzarreko Gazteri saileko lehendabiziko lehendakaria da.

❖ Altsasuko Lanbide Heziketa Institutoun zurgintza ikasketen 4. maila egiten ari da. Aitzinetik Metalgintza ikasi zuen Elizondon.

❖ Duela bi urte arte Basaburuako herri kirol taldean aritzen zen. Lesio baten ondorioz taldea utzi zuen eta geroztik nesken taldeko entrenatzailea da.

Iñaki IRIGOIEN:

## «Baztango gazteria elkartu eta mugiarazi nahi dugu»

### ZEIN HELBURUREKIN SORTU DA BAZTANDARREN BILTZARRAREN GAZTERI SAILA?

Lehen helburua Baztango gazte guztiak elkartzea da, politika edo bakoitzaren pentsamenduak alde batera utzita. Baztanen bazen horren beharra, ostatuak ez baitzuten gazteendako deus egiten eta udalak antolatzen dituen ekitaldiak ere nahiko ofizialak dira.

### ZEIN HARREMAN DUZUE BAZTANDARREN BILTZARRAREKIN?

Baztandarren Biltzarrekin lokal berdina konpartitzen dugu, baina gure estatutuak ditugu. Ideologia aldeetik ere berdintsuak gara, biok euskara eta euskal kultura bultzatu nahi ditugu.

### ZER ESKEINTZEN DIEZUE BAZTANGO GAZTEEI?

Lehenik eta behin, edozein erabilpen izaten ahal duen lokala eskeintzen diogu. Gero, dena ongi badoaie aktibitate andana egiteko asmoa dugu. Abenduaren 17tik urtarrilaren 8ra zine emanaldiak eskeiniko ditugu herri guzietan, futbol-sala,



partxis edo mus txapelketak ere antolatu ditugu eta horretaz gain, hainbat tailer martxan jartzeko asmoa dugu: atorrak, sexualitatea psikologo batekin, gorputz espresioa, txalaparta, zankoak, mozorroak... Asteburu Intsumiso bat eta kontzertu on bat ere egin asmoz gabilta, baina

ez dugu aunitz aitzindu horretan.

### ZENBAT ZARETE ETA ZER EGIN BEHAR DA GAZTERI SAILAN SARTZEKO?

Momentuz, ehun bat eskax izanen gara, baina gehiago izatea espero dugu. Zer egin behar den sartzeko? Ba, hamalau eta hogeita hamar urte arteko Baztango gazte guzietan 1.000 pezetako kuota ordaindu behar du. Gero, urtero 500 pezeta edo horrelako zerbait ordain-

du beharko dugu.

### HI BEZALAKO GAZTE BATEN IKUSPEGITIK, ZER FALTA ZAIO BAZTANI?

Gauza pila falta zaizkio. Donezteben Bordatxo dagoen bezala hemen ez dago deus. Neguko edozein asteburutan bi ordu t'erdietan edo hiru etan ostatuak ixten dituzte eta gazteok ez dugu nora joanik edo non elkartzetik. Kanpora edo etxera joan behar duzu. Horregatik, ea Baztanen zerbait mugiarazten dugun.

» «Abenduaren 17tik urtarrilaren 8ra zine emanaldiak eskeiniko ditugu Baztango herri guzietan eta horretaz gain, hainbat tailer eta txapelketa martxan jartzeko asmoa dugu»

**Ehizirik ez dagoela gure mendietan... Ehiztariak bota bai, baina zer egiten du naturaren alde? Horrelako erranak eta galderak maiz aditu izan ditugu eta bieri erantzun bat emateko sortu zuten joan den urtean Amaiurko faisai granja. Aspaldian gure mendietatik desagertua zen hegazti eder hau, han-hemenka ikusi ahal izanena da negu honetan, eskualdeko zenbait ehiztari elkarteren ekimenez.**



TESTUA  
AITOR AROZENA  
ARGAZIAK  
KARMELE TOLOSA

**J**oan den urtean, utzirik zegoen Amaiurko zeri granja erosi eta faisai haztegia egiteko auzolanean hasi ziren eskualdeko zazpi ehiztari elkartetako kideak. Ez zen nolanahiko inbertsioa izan, 4 hektareako eremua erosteko 42 milioi eta instalazioa egiteko 22 milioi pezeta ordaindu behar izan baitzituzten.

Lesakako 'Pagolleta', Sunbillako 'Kattagorri', Ituren, Elgorriaga eta Zubietako ehiztariak biltzen dituen 'Mendaur', Baztan eta Aurizberriko ehiztari elkartekin batera, Nafarroako Ehizi Federazioa (akzioen %15arekin) dira bazkideak. Halere, Isidro Bazterrika, Mendaur elkarteko lehendakariak behar beharrezkoa ikusten du sozio gehiagoren partehartzea: "Nafarroako ipar aldeko ehizi soziedade guztiak parte hartu beharko zuten proiektu honetan, aitzinera ongi eraman ahal izateko. Gainera, faisaiia Lesakan bota adibidez, eta Igantzi edo Arantzako ehiztariak probexu ahal izanen dute, deus ordaindu gabe. Batzuk egin dako lana bertzeek probexuten dute. Honelako gauzetan denak elkartu beharko genuen, merkeago ateratzeko".

#### **EHIZI ELKARTEEI**

#### **ZABALDUTAKO GRANJA**

Edozein egin daiteke granjako sozio, lehendabiziko bi urteetan hasierako prezioari bizitzaren kosta gehituz, baina Isidro gogoratzen duenez, "koto aunitzek ez dute arriskatu nahi. Hagitz polita dela erran bai, baina nola ateratzen den ikusteko esperoan daude. Guk milioiak arriskatu ditugu, ordea". "Gu ez gara inoiz itxiak egonen - gaineratzen du Kintxo Garatek - zazpi elkarte izan beharrean, hobe hirutan hogeit baldin bagara. Ezin da dena lasai egotera esperatu eta

# AMAIURKO FAISAI GRANJA: BAZKIDE BERRIEN BILA



12.000 FAISAI HAZTEN DITUZTE AMAIURREN LAU HEKTAREAKO EREMUAN. HORRETAZ GAIN, 2.200 GALEPER HAZI DITUZTE AURTEN ETA ETORKIZUNEAN, DENA ONGI BADOA, KONEJUAK HAZTEKO ASMOTAN DABILTZA.



IRURITAKO KINTXO GARATE ETA ZUBIETAKO EUSTAKIO BAZTERRIKA DIRA AMAIURKO FAISAI GRANJAN LAN EGITEN DUTENAK. BERAIEAN ARTEAN, ISIDRO BAZTERRIKA, MENDAUER EHIZTARI ELKARTEKO LEHENDAKARIA AGERTZEN DA. GRANJAKO GERENTEA ELIZONDOKO JAVIER ITURRALDE DA.

orduan sartu. Uzta biltzeko erein egin behar da”.

Elkarte bakoitzak, bere kotoak dituen hektarea kopurua-  
ren arabera ordaintzen du. Nafarroako Gobernari dirulaguntza eskatu diote baina ezez-

koa hartu dute handik.

#### FAISAIK HAZTEA:

#### ARRAULTZETIK MENDIRA

Bi langile ari dira lanean, 12.000 faisai hazten. Iruritako Kintxo Garate da arduraduna eta berekin batera, Zubietako Eustakio Bazterrika aritzen da egunero lanean. Ongi dakite beraien lanaren berri. Faisaiak kaiola haundi batzuetan egoten dira normalean. Mendira motelegiak ez ateratzeko ‘entrenamedu’ gisako zerbaitegiten dute. Ernalketaren orduan, arrak eta emeak elkartzen dituzte kaiola ttikiagotan, “bortz eme eta ar bat. Gero arraultzeak biltzen ditugu eta 17.000 arraultzerendako lekua duen inkubadoran sartu hogeitabat egunez, normalean martxoan eta uztaile bitartean, 38 gradutara eta hezetan jakin batekin. —dio Kintxo Garatek— Arraultzeak xuriak badira, ez daude ernalduak eta baztertzen dira”. Ondo-

tik, lau egunez bertze kamara batean sartzen dituzte eta bertan sortzen dira txitoak. Sortu ondotik ere, ongi zaindu behar dira faisai txitak.

► «Nafarroako ipar aldeko ehizi soziedade guztiek parte hartu beharko zuten proiektu honetan aitzinera ateri ahal izateko»

Lehen berrogeita bortz egunetan beroan egon behar dute eta ondotik libre uzten dituzte.

#### GALEPERRAK, LANGILE AMORRATUAK

Faisaiak ez dira, halere,

Amaiurko granjako bizilagun bakarrak. 2.200 galeper inguru hazi dituzte aurten eta horietatik erdiak baino gehiago salduak dituzte. Hegazti hau langile amorratua da Isidro Bazterrikaren erranetan. “Galeper

bakoitzak normalean 120 arraultze paratzen ditu tenporada bakoitzean. Gure granjan, tenporada hasieran 37 galeper genituen eta 3.000 arraultze egin dituzte, pentsa!”.

#### KONEJU GRANJA, ETORKIZUNERAKO ASMOA

Etorkizunari begira, koneju granja bat martxan paratzeko asmoa dute Amaiurko granjan. Horretarako pabeloi haundi bat badute leku berean, orain erabiltzen ez dutena. Halere, oraindik ez daukate batera argi. “Koneju granja paratzeko proiektua bada, bainan lehenbiziko faisaien salmenta ekonomikoki nola ateratzen den ikusi behar dugu. Ongi ateratzen bada, gero ikusiko dugu”. ■



**Isidro BAZTERRIKA**

‘Mendaur’ Ehiztari elkartearen lehendakaria

«Bakarrik pentsuan 1.200.000 pezeta joaten zaigu hilabetero»

■ **Gastu handia du hone-lako granja bat mantentzeak?**

□ Bai, ikaragarria. Bi langileren dedikazioa kontutan hartu gabe eta hasierako inbertsioa alde batera utzita, faisai bakoitzak hogeitauro pentsu jaten du hilabetero, hau da, guztien artean 1.200.000 pezeta hilabetero.

■ **Nola bururatu zitzaizuen faisai granja egitea?**

□ Ehiztariok aspalditik ikusten dugu ehizi guti dagoela mendietan, gero eta gutiago.

Gainera beti izaten dira kritikak, ekologisten aldetik eta, ez dugula deus egiten naturaren alde. Horregatik mendietan faisaiak libratzea gauza polita izanzen zela pentsatu genuen. Gero, granja martxan paratzeko lan handia egin dugu ehiztariok auzolanen.

■ **Bertako espeziea da faisai?**

□ Garai batean, aspaldian, izaten omen ziren bakarren batzuk. Halere, hemengo mendietan ongi laketzen duen hegaztia da.

E GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 5.900 ALE  
TARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE  
ERRIKO ETXEO PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA.: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**ndaria:** Joxemanuel Iri-  
**Publizitatea:** Miren Kar-  
Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-  
rozena, Joxemanuel Iri-  
**Erredakzio taldea:** Pe-  
pezetxea, Juainas Paul,  
na Boan, Bittori Telletxea.  
**emaileak:** Joseba Azpi-  
Esteban Arozena, Juana  
Saizar, Ainhoa Mutuberria,  
sasi, Txema Aldabe, Pello  
gia, Txema Urroz, Patxi  
ndorena, Daniel Martirena,  
l Maia, Josune Etxebeste,  
Mendiburu, Joseba Iga-  
e, Alizia Olaizola, Margari-  
rike, Koro Irazoki, Mixel  
ndiain, Jacqueline, Marta  
Oskar Txoperena, Al-  
Sansiñena, Pello Apeze-  
Aitor Arozena, Kristina  
**Kolaboratzaileak:** EHNE  
roa, Patxi Lasa, Josetxo  
erregi.

**ategia:** Gertu (Oñati).  
**ttapak** ez du bere gain  
en derrigorrez, aldizkarian  
azitako erranen eta erizien  
zukizunik

**unde Laguntzaileak:**  
Leitza, Goizueta, Areso,  
n, Urdazubi, Zugarramur-  
a Sarako udalak, Bor-  
ako Euskara Mankomuni-  
Malerrekako Zerbitzu  
omunitatea...

  
dizkari honek Nafarroako  
eranuaren laguntza jaso du

**GAURKOTASUNEKKO GAIA**

*Nola ospatzen dituzu besta hauek?*



Inaxio URSUEGI  
Gartzaingoa

Gabonetan eta urtezahar gau-  
ean normalean  
etxeokokin afaltzen dut eta  
gero koadrillarekin ateratzen  
naiz buelta bat ematera.  
Besta hauek direla eta, gure  
etxean jaiotza paratzeko ohi-  
tura dago. Erregaloei dago-  
kionez, berriz, nik egin egiten  
ditut eta hartu ere, bakarren  
batzuk hartzen ditut.



Koro ZELAAIETA  
Sunbillakoa

Gabon gaua eta urtezahar gaua etxean pasatzen ditut. Bueno, urtezahar egunean, afaldu ondodetik Doneztebera joaten gara poteatzera eta gero Sunbillara bueltatzen gara. Etxean jaiotza eta arbola jartzten ditugu, biak etta erregaloak egiten ditut, baiñan egia erran, errezibitu gehiago.



Marga ERDOZAIN  
Doneztebekoa

Gabonetako eta urtezaharreko afariak etxean egiten ditut gurasoeekin. Erregaloena, beste kontu bat da. Senarrari egiteaz aparte, senide guzien artean egiten diegu opariak gurasoei. Hartzerakoan, nik bakarrik senarrarenak hartzen ditut. Gurasoek urte osoan egiten dizkide opari nahiko.

*Nork ekartzen dizkiizu opariak?*



Javier ETXEBERRIA  
Ezkurrakoa

Opariak etxe-  
koek ekartzen  
dizkide erre-  
getarako. Aurten urrundik gidatzen den kotxea eskatu behar dut, eta baita baloia, raketa bat ere. Eskatu behar dudan guzia ekartzea espero dut.



Ibai ETXAART  
6 urte, Leggasakoa

Erregaloak aittak eta amak ekartzen dizkide eta Olentzerotan eta Erregetan hartzen ditut. Oraindik ez dut pentsatu aurten zer eskatu behar duan. Telebistan ageertzen direnak txorrada bat dira.



Nagore TXOPERENA  
11 urte, Igantzakoa

Erregaloak Olentzerotan eta Erregetan hartzen ditut, baina gehienak erregetan. Aurten Casioren bideo-agenda eskatu behar dut. Nik ere egiten ditut erregalo batzuk, anaiari attari eta amari. Etxean jaiotza eta arbola jartzten dugu.

**MAGNETISTA  
NATUROPATA**



**943 - 62 30 55**

**San Martzial, 7 - 4.  
IRUN**

ZENTRU EZ-SANITARIOA

**IKUSMENARIEN  
BERRESKUR/ATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Hipermetropia
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kaataratak

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Arratsaldetan 2etatik 10etara. Ordua eskattu

**ONDORIOETATIK  
INDARTZEKO**

- Diabetea
- Asma
- Larru-azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata...

Bixkortzea  
Artritia, Erreuma  
Artrosia  
Lunbalgia  
Bihurdurak

**GIHARRE  
ARAZOAK**

## BOTA BERTSOA



### Olentzerori eskutitza

**Joxe ETXENIKE**  
Baztango Bertso Eskola  
Neurria: Zortziko Haundia

*Nork ez ote du maitatzen egun  
Olentzeroren epela  
zerbait eskatzen hasi behar dut  
ikusiz gainean dela  
gure artera bake santua  
ekarri dezala bela  
gera guztiak bukatu eta  
alai bizi gaitezela.*

*Oparietan dagon dirua  
hobekiago ibili  
eta sobratu dagon horretaz  
pixka bat harantz bidali  
Afrika aldean goseak dago  
hainbat eta hainbat famili  
hainbeste opari egin beharrean  
haien gosea itzali.*

### Goizuetako Olentzeroa

Azken urteotako Olentzero edo 'jaiotzen' kopurua handia da. Eskolakoen dirua 8. mailakoen bidairako da. Haur txikiak Somaliara ere bidali izan dute. Presoen aldeko Olentzeroek presoen ematen dute. Jaiotzarekin ateratzen direnak berriz, Ospital zaharra konpontzeko... laz neregan diru eske hurbildu zirenean zertarako zuten galdetu nien; "ez dakigu ziur oraindik, apaizak kapilla egin nahi omen du bere etxe azpian astegunetan bertan meza emateko" erantzun zidaten. Ordurako alkateak esana zien Ospitalerako dirua biltzea alferrikakoa izan zitekeela, zail zegoelako etxearen moldaketa. Handik gutxira elkartearen afaldu zuten jaiotzarekin ibilitako gehienek, sukaldari eta guzti. Inork ez zuen sosik bota, dena eskean bildutakoarekin ordaindu zen.

Badakit denak errudunak ez direla, denok dakigu zein diren jaiotza hori bultzatzen dutenak. Baina hor ibiltzen zareten errugabeak ez gelditu isilik eta ez utzi honelako ohitura zahar hau lau lotsagaberengatik zikintzen.

## IRAKURLEAK MINTZO

Inor timatua senti ez dadin, aipatuko dut zertan gasta litekeen dirua: zentro zaharra konpontzen, liburutegia sortzen, zaharretxe batean... Bukatzeko herritarrei esango nieke aurten dirua bota aurretik galdetzeko nola bideratuko den bildutakoa. Hortik aurrera bakoitzak nahi duena egin dezala.

TIMATUA IZAN DEN BAT



### Turismoaz

Azkeneko TTAPI-TTAPAN, arras interesgarria iduritu zait nekazalturismoaren gaiarekin bildu dituzuen eritziak. Zuen aldetik bada zerbait bainan ez da aski. Gaiak inportantea da eta nere ustez TTAPI-TTAPAN orain arte baino leku gehiago eskeini beharko lioke. Nekazarien eta hauen sindikatuen ahotsa aisa gehiago entzun beharko zen. Izan ere, eta Baztan aldean ikusten denarekin, nekazaria ez ezik bertze normahi ari da probetxua ateratzen turismoaren aitzakian. Nekazalturismo izenarekin jarri diren etxe gehienak ez dira nekazaritzatik bizi eta aprobetxatu egiten dira egiaz nekazariak direnak beren eguneroko lanarekin egiten ari duten inguru naturalaz. Gauzak garbi erran behar

dira. Errate baterako; arras *arrisksua* iduritzen zait kontsurtzioko buruek ekarri nahi diguten turismo masiboa. Afera eskutik joaten ari zaie. Adibidez: Erratzuko camping-a herria bera baino haundiago izanen da; gauza beretsua Sunbillakoa eta ikusi behar gibeltik etorriko direnak. *Gezurra* da turismoak Baztan inguru aberastuko duenik, batez ere, turismoarekin galduko dugunarekin konparatzen baldin badugu; bertakoen bizi kalitatea txarto, kultura mailan morroi bihurtu, euskara zokoratu... Urtean hiru hilabetez, nori uzten diote dirua turistek? Ostalariei, jatetxeei... Hauetako batzuk, turistak bezain kanpotarrak dira berdin zaie bertako kultura eta bizi kalitatearen kontu hoiek. Kanpotarra da baita 'Acis', kontsurtzioa gestionatzen duen enpresa eta ageri da zer sensibilitate klaserekin jokatzen duen.

Turismoaren negozioarekin deus irabaztekorik ez dugunak gehienak gara, zoritxarrez. Zergatik sufritu behar dugu gehienok guti batzuk turismoarekin negozioa egin nahi dutela eta?

J.L. GOÑI



## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak


BERA © 630735  
IRUN © (943) 622305

## KIROL MODA

# Sport 3

- TXANDALAK
- POLARRAK
- LUMADUNAK
- KIROL OINETAKOAK
- IZERDITAKOAK
- LIBERTO

COLON P., 48 © 943- 61 23 40 -- IRUN



ZIALDO OSTATU  
LESAKA



Diario de Noticias 94-XI-29

«Hameka hilabete baino gehiago lesionatua egon ondotik, ilusioa egin dit berriz futbolean hasteak, bainan ez dut oraindik beldurra gainditu».

**Unai MEOKI**

Baztan taldeko futbolaria  
Diario de Noticias 94-XI-29

«XVIII. mendea dogmatismo eta erruduntasun konplexuaren gorazarrearen mendea da, eta gaur egungo gizartea horren ondorioa da ».

**Eduardo GIL BERA**

Narbarteko idazlea  
Nafarkaria 94-XII-2

◆ **Nola lortzen duzu etxe guzietara ailegatzea?**

❖ Entrenamendu haundia behar da horretarako

◆ **Zer moduz portatu dira haurrak?**

❖ Orokorrean, arras ongi. Ez dute gaixakeria haundirik egin.

◆ **Beraz, ez duzu ikatz aunitz partituko?**

❖ Haurrei behinipein ez. Haundien artean gehiago dira ikatza merezi dutenak.

◆ **Neska-mutikoez zer eskatu dizute?**

❖ Mutikoez bideo-jokuak eta horrelakoak. Neskek imaginazioa gehiago lantzen dute.

◆ **Zuk zer eskatzen diezu haurrei?**

❖ Zapatillen ondoan janari pixkobat uztea... Ah!... eta tximeneako sua ez piztea.

◆ **Konpetentzia haundia duzu Papa Noel eta Errege Magoekin?**

❖ Batez ere erregeekin, bainan garai batean gehiago.

◆ **Eta zer erratan ahal duzu zure alde?**

❖ Nere jostailuekin opor guzietan jostatzen ahal dutela.

◆ **Zer iruditzen zaizkizu abesten dizkizuten kantuak?**

❖ Ilusio haundia egiten didate, bainan ez dut hain buru haundia.

◆ **Eta edatea horrenbertze gustatzen zaizu?**

❖ Mendiko lana gogorra da, bainan ez dut inoiz hustu 10 arroako zagirik.

◆ **Noizbait topo egin duzu haur batekin?**

❖ Ez, ni etxetara ailegatu orduko denak lo egoten dira xintxo-xintxo.

◆ **Zer oparituko zenioke munduari?**

❖ Gosea eta gerrateak desagertarazteko tresna bat.



**ZURE MODAKO DENDA MARKARIK HOBERENEKIN:**

- ✓ Daniel Hechter
- ✓ Caramelo
- ✓ Barbour
- ✓ Genfis
- ✓ Lacoste
- ✓ Bonaventure
- ✓ Replay
- ✓ Diesel
- ✓ Island
- ✓ Blanc bleu

**EGUBERRIETAKO OPARIK HOBERENA**

Fuenterrabia, 6 Tfnoa. 943-615815 IRUN

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

E D A R I A K



**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA

Tel. - Fax: 948. 63 10 27





## Musika soinua nagusi izanen da abendu osoan

Igande honetan Musika Eskolaren urteroko kontzertua eta abesbatzaren emanaldia

KRISTINA BOAN

Hilabete honetan, musika soinua nagusi izanen dugu. Abenduaren 17an ospatuko da Musika Eskolako urte akabera dela eta, urtero antolatzen duen besta.

Ikasleek, kurtsoan ikasitakoa erakutsi zuten. Akordeoia, pianoa, bibolina, klarineta, saxofoia, flauta, tronpeta, banda eta haur korala aditzeko aukera izanen da.

Orain berriz, Berako abesbatzaz arituko gara, igande honetan arratseko 7etan egingen baitu bere agerraldia. Urtean zehar kanpoan ibili ondotik, Urruñan (bi aldiz), Azkainen (bi aldiz) eta Lizarran ospatu zen Nafarroako Abesbatzen topaketan, Beran eskainiko dute 94ko azken kontzertua. Kontzertu honetan, gabon kanta ugari eta Aita Olazaran, Aita Donosti eta Sorozabalen bertze euskal doinuak ent-



Aurten ere herriko karrketan barna ibiliko dira neska-mutikoak olentzeroa pasiatuz Artxiboa

zungai izanen dira. Berrikuntza gisa, azken hiru abestiak, Musika Eskolako txistulari taldearen laguntzarekin kantatuko dituzte. Badi-rudi 1995erako proiektu ugari dituztela: lortzen ari duten ospea ikusita, maketa bat grabatzea eta Nafarroako Abesbatzen Topaketa Beran egitea heldu den udazkenean, bertzeak bertze..

### Eguberrietarako programazioa ekitaldiz bete

Gabon egunean herriko haurrek indako olentzeroak ateriko dira arratsaldeko 3,30etan Herriko Etxeko plazatik. Umeak gero, karriz-karrika ibiliko dira kantari eta eskean. Arratsaldeko 5,30etan Gure Txokoak antola-

tutako olentzeroa ere ateriko da. Entsaioak, aste horretan bertan egingen dira Iamotenean, arratseko 8etan.

Bertzalde, Urte-Zahar gauean 'Glin-Glan' kantatuz ateriko dira arratsaldeko 3etan gaztetxoek Agerratik.

*ttipi-flash*

### Lanpostu deialdia

Udalak, administrari laguntzailearen lanposturako deialdia zabaltzea onartu du. Lanpostu honetan, euskaraz jakitea eskatzen da. Xehetasunak Herriko Etxean daude ikusgai.

### 'Alco' haunditzeko baimena

Udalak, Zalainen hiru pabilioi berri egiteko baimena eman dio Alcori.

### Dirulaguntza DYari

Aurtengo defizita osorik estaltzeko hainakoa ez bada ere, dirulaguntza zerbait ematea onartu zuen Udalak.

### Mendi Federazioan

1995erako federatu nahi duenak Agerra mendi taldean izena eman dezake edo 630264ra (Xabier Zubietan) edo 631272 (Angel) telefonoetara deituz.

### Ricardo Barojako

Eskola-kontseiluan Portu eta Urtxegikontzejalak dira udal ordezkariak.

**BOTXO**  
**ostatua**

Tfnoa.: 63 00 52  
Zalain auzoa, BERA

**SAROBE**  
**okindegia**

**SANDERS** Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



**GOZOTEGI - JAIONE**



Itzea 3 • 630786 • BERA

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

**AYLA**

**ARGAZKI DENDA**

**Bixente Taberna**

• EZKONTZA ERREPORTAIK  
Argazkia eta Bideoa

Legia 4 • © 630597  
BERA



# PNVk ez zuen gose greban zeuden intsumisoen aldeko mozioa onartu

Alkatearen erranetan, legalki udaletik desobedientzia zibilerako deialdia egiterik ez dago

AITOR AROZENA

Joan den hilabetean gose greba burutu zuten intsumisoek igorritako mozioa ez zuen onartu udalak, HB eta EAK aldeko botoa eman arren PNVk kontra botatu baitzuen.

Idatzian, intsumisoek gartzelaz, disperzioaz eta errepresioaz nahikoa dela adierazten zuten, Gobernuak soluzio politikoak hartzeko garaia dela gaineratuz. Eraberean, desobedientzia zibilerako deia luzatu zuten eta ejerzitorik gabeko gizarte baten aldeko apostua egin zuten: "Errepresioa ez da soluzioa, intsumisioa ez delako arazoa. Arazoa ejerzitoa da eta soluzioa intsumisioa" erranez bukatzen zen intsumisoen idatzia.

PNVk, kontrako jarrrera azaltzerakoan, "legalki udaletik desobedientzia zibilerako deialdia egiterik ez da goela" erran zuen.



Jabier Muguruza musikiariak, 'Boza Barruan' izeneko diska aurkeztu zuen abenduaren 1ean Kattun Arg.: Aitor

## Juan Carlos Pikabearen margolanak Iruñean ikusgai

Abenduaren 2an hasita eta urtezahar eguna arte Juan Carlos Pikabea 30 urteko margolari lesakarraren lanak ikusgai egonen dira Iruñeko Pintzel galerian. Areto hau astegunez eta larunbat goizetan irekia egonen da, goizeko

10etatik 1,30ak arte eta arratsaldeko 4,30etatik 8ak arte. Lehendik ere zenbait erakusketa egin ditu Pikabeak eta oraingo honetan, Baztan-Bidasoako paisaietaz gain, Belatez bertaldekoak ere zintzilikatu ditu.



Juan Carlos Pikabea

### ttipi-flash

#### Udal musika eskolaren

1994-95 ikasturterako aurrekontua 12.180.466 pezetakoa izanen da.

#### Olentzero eta jaiotzak

Azken urtetan bezala arratsaldez izanen da olentzero eta jaiotza lehiaketa. Honez gero lanean fuerte dabilta herriko neska-mutikoak.

#### Arrano elkartearen eguna

Abenduaren 17an (larunbata) ospatuko da. Arratsaldeko 4,30etan mus txapelketa, 7etan kalejira txarangarekin eta gaueko 9,30etan herri afaria izanen da. Afariaren ondok ere giro ederra izanen da txaranga, bertsoak eta kantak ez baitira faltatuko.

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

**BEKO ERROTA**

Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26

LESAKA

**Deñe**

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Behoko Plaza 8, LESAKA

**ORBELA**

**GIMNASIOA**

Squash  
Sauna  
Gimnasia aparatuak  
Hidromasai bainera

Antoiu 21  
(Osasun zentroaren ondoan)

637950 • LESAKA

**JOSEMA RAMOS**

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut

631342 BERA • 637172 LESAKA



# Gaztetxoek biltzeko tokia nahi dute

Udalak eskola zaharretako bat eskeini die

PELLO ETA ALBERTO

Non bildu ez dutela eta, Udalari eskatu dio leku. Udalak ere aukera aunitz ez duenez, eskola zaharretako bat eskeini die. Ez, noski, eurentzat; ezta eurek bakarrik erabiltzeko ere. Baina aunitz orduz bertaratzerik izanendute, gehienetan hutsik egoten baita. Salbador Ansalas izendatu dute lekuaren eta gazteenganako hartu-emanen arduradun.

## Omenaldia

80 urte beteak dituzten 15 bazkideei oroitzapen seinale polit bat oparitu die Larraburua Elkartek, elkartearen Eguna ospatu duen Xabierreko San Franzisko besta egunean.



Berriki Larraburua elkartekoak Miarritzen barna egon ziren bidaietan

Arg.: PELLO

Opari hartu ondotik bazkarira ere gonbidatuak ziren, zeinean lautanhogeita hamabi bazkidek parte hartu baitzuten. Hona omen-dutakoen izenak: Barbereneko Pakita, Ja-

bierneneko Fermina, Suspelaldeko Toribio, Apeztegi edo Artxen-tzeko Juanito, Arrigaraiko Santiago, Landa-buruko Bordako Joxe Mari, Xaxineko Sabina, Intzeko Tomasa,

Urtzalleneneko Esperanza, Juantximoneko Juan, Perueneko Pilar, Axularko Frantxixku, Gorosurretako Kornelio, Behekoetzeko Enkarnaxion, Arretxeberriko Mari Paz.

## Personaia



Ainara Arburua

### Udalari tokia eskatu diozue; zertarako?

Elkarrekin egoiteko. Neguan hotz egiten du nonahi egoiteko eta leku bero bat nahi dugu.

### Eta bertzerik deus egitea pentsatzen duzue?

Musika aditu, bai. Dena den, gehien bat elkarrekin solasaldiak egitea bilatzen dugu. Zerbait gehiago antolatu nahi genuke, mus txapelketa, mendirako ateraldiak...

### Horrek lan egitea eskatzen du. Prest dago jendea horretarako?

Bai, hala espero dugu.

### Noiz duzue tokiaren behar haundiena?

Asteburuetan, dudarik gabe. Ortziral, larunbat eta igandean ez baikara herritik kanpo joaten.

## LEGARRA

Legarrea 9  
© 637030  
LESAKA

• A-Z' Akordeoi' Artxibadorea	4.500 Pta.	1.175 Pta.	• Oparietarako papera	30 Pta.	20 Pta.
• 'Jovi' Marrazki Maletina	3.625 Pta.	2.900 Pta.	• 'Staedler' metalezko kutxa (12)	680 Pta.	575 Pta.
• 'Carioca' Errotuladoreak (36)	830 Pta.	690 Pta.	• 'Staedler' metal. kutxa (24)	1.355 Pta.	1.150 Pta.
• Kremallera Plumier (12)	1.230 Pta.	1.100 Pta.	• Poker kartak (55)	555 Pta.	395 Pta.
• Krem. " eta akzesorioak	1.575 Pta.	1.375 Pta.	• Karta normalak (40)	440 Pta.	250 Pta.
• Haurrendako aizurrak	150 Pta.	120 Pta.	• Bic kristal boligrafoak	45 Pta.	28 Pta.

\* Eskaintza hauek, abenduaren 1etik 1995eko urtarrilaren 31a arte baliagarriak dira

## KOXXKONTA



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA



KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK

Sukaldaritzarik hoberena xokorik politenean

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038

• ETXALAR (NAFARROA) •

Igantzi


# Abenduaren 19tik 22ra izanen da eskolako haurren irratsaioa

Jendea hasi da Olentzeroak prestatzen

## OSKAR TXOPERENA

Abenduaren 19tik 22ra arteko astean eskeiniko dute Igantziko eskolako haurrek urtero egiten duten irratsaioa. Jakina denez, FM 107,2garrenean paratu behar izaten da irratan herriko neska-mutikoak entzun nahi izanez gero.

Eguberri atarean sartuko gaitu horrek nolobait. Nabaritzen da azken egunotan giro berezia, herriko xoko aunitzetan olentzeroak prestatzen ari baitira. Ea eguraldiak orain arte bezala laguntzen duen, haurren etxez etxeko eskeak eta olentzero lehiaketak honelaxe eskatzen baitute.



Eguraldiak laguntzen segituz gero, Eguberrietarako akautuko dute tenis pista. Dagoeneko badu itxura polita. Hemendik urte batzutura 'Roland Garros' txapelketa irabazteko moduko «berasategiak» izanen ditugu Igantzin, dudik gabe. Kilo t'erdi pisatu zuen Josu eta Enekok eskutan daukaten azenario eder horrek. Antxontxeberriko baratzean bildutakoa da. Bista ez dute errex galduko horrelakoekin, ikusteko modukoa baita. Ur sareak ez du bake haundirik ematen, eskin bat moldatu orduko bertzetik lehertzen baita, etxetara doazen tubo ttikietatik gehien bat. Azkeneko darioa eliz atarean izan zen.

Argazkiak: OSKAR



**IRU BIDE**  
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
LESAKA

**SASKI**  
OSTATUA  
LESAKA

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bitiria LESAKA  
627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

**INAKI ITURRIA**  
**INSTALAZIO ELEKTRIKOAK**  
Instalazio zaharren berritzeak  
**PORTERO AUTOMATIKOAK**  
**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe**

Jauregieta 12  
635028 - 635246  
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.  
9431 61 24 24  
20300 IRUN

**ESTHER ATEAK, C.B.**

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA  
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak



# Patxi Bergarak ezin izan zuen txingetako errekorra hobetu

Donezteben lortu ez zuena, Arantzan bertan lortu nahi du, Errege eguneko mendi mutilen bestaren barrenean

GARBINE ETA ELIXABET

Nafarroako herri kirol errekorren jaialdia burutu zen urtero bezala Doneztebeko frontoian. Aurtengoan, Patxi Bergara arantzarrak errekor berria paratu nahi zuen 200 kiloko txingekin (ehun kilo esku bakoitzean, alegia). Horretarako 30 metrotik goiti egin behar zuen bainan 27 metrotan gelditu zen. Patxi Bergarak adierazi duenez, hasieran sarrera txar xamarra egin omen zuen eta azkenean ezin izan zuen gehiago segitu.

Halere, hagitz gustora gelditu ez zenez berriro saiaturko da, oraingoan Arantzan bertan.

Errege egunean, ur-



Arantza, Etxalar eta Igantziko eskolen arteko topaketan antzerki saiorik ez da faltatuko aurten ere

tero izaten den mendi mutilen bestan saiaturko da bere errekorra ezartzen eta modu honetara, Arantzako jendeari dedikatuz. Ea suerte gehiago izaten duen.

## Aurtengoan, hiru haur bataiatu dituzte

Azaroaren 22an ospatu ziren herriko bataioak. Egia da gero eta haur guttiago sortzen direla, bainan aurten-

goan hiru izan dira bataiatutako haurrak: Markel Jorajuria, Unai Arozena eta Alane Iturria.

## Eskola arteko topaketak

Urtero bezala, Etxalar, Igantzi eta Arantzako eskolen arteko topaketa eginen da. Aurtengoa abenduaren 14an (asteazkena) ospatu beharra zen Arantzan. Bertan, hiru eskola hauetako hurrek, baita ttikienek ere, antzerki saioak eskeiniko dituzte. Abenduaren 18an, antzerki saio hauek berri eskeiniko dituzte, oraingoan ikustera hurbildu nahi duen jende guziari zabalik. Bukaeran, eskolako eguberrietako bi zareak zozketatuko dituzte.

**ANTZUZELA S.L.**

IRUNGO errepeidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

"Abnjardadou" Mazizoa  
Zuhar onzekoa - Txapetua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

**KIROMASAIA**  
Iñaki Razquín

- ✓ **KIROL MASAIA** - Besoa - Belauna  
- Ukalondoa - Zurmioa
- ✓ **GIHAR LASAITZEA**
- ✓ **BIZI MASAIA** - Zerbikalak - Kaderak  
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatikal
- ✓ **ERLAJAZIO MASAIA**  
Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

**TERAPEUTA DIPLOMATUA**  
Kontsulta leku zentrikoan  
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi, 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81  
Ordutegia: Astelehenetik ortziralerara 16.00tik 20.00ra  
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra R.P.S.: 199/94

**LABEZAR**

© 631076 • BERA

**ZIZKA OSTATUA**

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 • BERA



# Ezkongabe diren mutilen bazkaria abenduaren 28an ospatuko da

Basurde ehizian ibiltzen den taldeak, bertzalde, hameka basurde bota ditu dagoeneko

JOSUNE ETA IXABEL

Ezkongabe dauden mutil talde bat, 'neskaren bat harrapatzeko asmoarekin' besta bat antolatzen ibilki dira. Hilabete honetan gehienek oporrak dituztela probex-tuz, heldu den 28an egitea pentsatu da. Bertan parte hartzeko, neska eta serio-tasuna izatea eskatzen da. Non eta nola izanen den jakiteko kartelak jarriko dira zonalde guzian barna.



Basurde ehizian fuerte dabil-tza sunbildarrak

Hiru igandean, lau larunbatean eta hurrengo igandean bat.

Larunbatean, Nafarroako Eguna probex-tuz, 30 lagun inguruko koadrila elkartu zen. Lau basurdeak bota zituztenak Daniel Bertiz,

Juan Luis Apeztegia, Jexux M<sup>a</sup> Arretxea eta Agustin San Miguel izan ziren.

### Kinto besta

Abenduaren 8an, 87 urte dituztenak kinto besta ospatu zuten. Besta hau duela 27 urte

hasi ziren egiten. Aurten 5 lagun elkartekoak ziren, baina Patziku Ibarra ospitalean dagoela eta lau izan ziren: Maximo Errandonea, Miguel Mariezkurrena, Juan Apeztegia eta Prudencio Ganboa.

### ttipi-flash

#### Ulibeltzak-en bilera

Ulibeltzak elkarteak bilera izanen du hilaren 17an arratsaldeko 7etan gai bakarrarekin: elkartearen funtzionamendua etorkizunean.

#### Pala gomazko finalak

Abenduaren 17an jokatuko dira pala gomazko txapelketaren finala eta finalerdia. Finalerdia 6,30etan izanen da eta finala ondotik.

#### Trikitilariak ETBn

Abenduaren 14an izan ziren Sunbilla-ko trikitilariak gabon gauerako saioa grabatzen.

## IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 DONEZTEBE

## BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezti 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



## TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gerezi-ondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.


Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobe-txa ezazu.

1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

# Kultur Zikloa Eguberrietan Langarraren eskutik

Liburutegian literaturan oinarritutako zinea ikusteko aukera izanen da bortz egunez



Ipuin kontalariak izanen dire Beintzako ostatuan

Argazkia: Artxiboa

liburutegian 'Santiago-rabizikletaz' bideoaren emanaldia. Zikloa akitzeko, 30an, Sunbillako Ulibeltzak elkartean Sunbillako historiaz arituko da Xabier Ezkieta. Gero afaria.

## Bideo emanaldiak Liburutegian

Nafarroako Hizkuntza Politikak lagunduta bortz pelikula ezberdin botako dira Doneztebeko liburutegian, abenduaren

29, 30 eta hilbeltzaren 2, 3 eta 4an, arratsaldeko 7etan. Emanaldi hauek, bortz liburu ezberdinetan oinarriturik egindako filmak dira.

ttipi-flash

- ❖ **Administrari laguntzaile berria**  
M<sup>a</sup> Jose Zarranz aukeratu zuen udalak azkenean, aintzineko plenoan hautatua bertze bat izan bazen ere.
- ❖ **Musika Patronatoaren**  
aurtengo aurrekontua 9.728.108 pezetakoa da.
- ❖ **Udalan informatika**  
Prozesadorea erosi du udalak 348.422 pezetatan. Honez gainera, bertze 200.000 pezeta gastatuko dira informatika sarea hobetzen.
- ❖ **Zuzenketa**  
Doneztebeko udalak Alondigako bajerak 32 milioi pezetatan salduko ditu eta ez 321 milioietan aintzineko alean paratzen zuen bezala. Barkamenak orarengatik.



## SANTAMARIA

### Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



## LAKANBRA

### EGUBERRIETAKO ESKAINTZA

Mendi Bizikletak, 14"tik 26"ra  
13.300 pezetatik goiti

Parrokia 18 • © 450082 • DONEZTEBE

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN  
zure esku gaituzu.

ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA  
Tfnoa: 637404

## PIKABEA BOUTIQUE

### UDAZKEN eta NEGUOKO MODA

GIZON, EMAKUME eta GAZTEENDAKO

Berokiak, Trenkak, Trajeak,  
Puntuzko Arropak, Jakak,  
Atorrak, Jertseak,  
Pitilloak...

Karrika Nagusia 5 (Eliza ondoan)  
© 450207 • 450151 (etxekoa) •  
DONEZTEBE

EGUBERRIETAKO  
ESKAINTZA BEREZIA  
Artikulu guztiak %20a  
merkeago



# Pello Zestau da Ezkurrako alkate berria

77 milioi pezetako aurrekontua izango du Ezkurrako ur-hornidura, saneamendua eta zolaberritze lanak

**EZKURRA**

Pello Zestau, orain arte alkateordea zena, izanen da hemendik aurrera Ezkurrako alkatea. Luzio Baztarrika, hiru terdiz alkatea izan dena ordezkatzeko beste kandidatek bat ere aurkeztu zen, baina gehiengo osoa ez zuen atera. Modu honetan, Ezkain Kandidatura Independententeko zerrendan bigarren postuan zegoen Peio Zestau izanen da alkate.

**77 milioiko lanak**

Nafarroako Gobernuak Ezkurran egin beharreko hornidura, saneamendu eta zolaberritze lanak onartu ditu. Hirurteko Planaren barnean sartutako lan hauek 77 milioi pezetako aurrekontua izanen dute.

Bestalde, soldaduskako zozketan, Juan Karlos Mariezkurrenari Melillara eta Julian Gogorzari Iruñeratokatu zaie.



Zestau izango da Ezkurrako alkate datorren urteko hauteskundeak arte  
Argazkia: KARMELE

**Zubietako haurrak Eguberri bezperan kantari ateratzeko ez dira bildu oraindik**

**AINHOA MUTUBERRIA**

Zubi luzearekin hasi ginen eta bi aste-tako oporrek inamaitzen dugu urtea, beste batean sartuz. Abendu izaten da gehienetarik esperatuena, batez ere haurrentzat, opariak jasotzen dituztelako. Abenduaren 24an, Eguberri bezperan, Zubietako

haur guztiak elkartu eta herrian barna etxe etxe eguberrietako kantuak abestuz buelta bat emateko ohitura dago. Aurten ere, hala behar izanen luke, baina oraindik ez dute antolatzeke bilerarik egin.

Egia da bai, beti berandu hasten dela gauzak egiten. Azken

momentua arte ohitura zahar hau mantenduko dela esperantza izanen dugu. Beste arazo bat da gero eta haur gutxiago dagoela eta gainera, dauen horiek hazi baino lehen haundiegiak sentitzen direla horrelako jai egun bat egiteko, lotsa ematen die-lako edo.

*ttipi-flash*

❖ **Mendi aprobetxamenduak**

Nafarroako Gobernuak Mendi sailak Malerrekako zenbait herrietako herri lurretan egin beharreko mendi aprobetxamenduak baimendu ditu. Hone-lan, Eratsunen 2.413 alertzeko probetxuko dira, bertatik 919,29 metro kubiko ateratzeko modukoak eta 3.212.918 pezetako balioarekin. Donezteben berriz, mota ezberdinetako 1.410 zuhaitz probetxuko dira, 417.007 pezetako balioarekin.

❖ **Idoia Mariezkurrena**

Labaiengo jabalina jaurtitzaileak Nafarroako atleta onenari emandako diploma jaso zuen Nafarroako Gobernuak Kiroleta eta Gazteria sailaren eskutik. Tenporada akitzeko modua ona.



Amezitia karrika z/g  
Tlf. 450163 • DONEZTEBE

**Lurrindenda  
Oparidenda  
Apaindegiak**

**HEMENTXE DUGU BILAKA ZABILTZAN OPARI HORI!!**

- Oparietan bisuteria, boltsok, pañuelok, dekoraziorako opariak eta marka onenetako perfume berriak.
- Apaindegian aurpegi eta gorputzerako tratamenduak, solarium-a, ileak kentzeko sistema tradizionala eta *elektrikoa* emaitza onenak ziurtatuz.

**Berrikuntza: Azido glikolikoarekin egindako tratamendua.**

**Zimurrak, beltzuneak eta markak kendu eta larru-azal berria lortzeko**



**ZURE ZERBITZURA GAITUZU!!**

*Zorionak eta Urteberri on!!*







# BORDATXO



DONEZTEBE • NAFARROA

## Z O R I O N A K

**Eguberritako programazioa**



IGANDEA, 25 "EGUBERRI EGUNA"

**Eguberrietako Saskien Zozketa**

**XANADU Taldearen** aktuazioa



LARUNBATA, 31 "URTEZAHAR GAUA"

**Gau osoan Txanpaina Botilak zozketatuko dira**

**ELURTE Taldearen** aktuazioa



IGANDEA, 1 "URTEBERRI EGUNA"

**DISKOTEKA DOHAINIK**

**(Urtezahar gaueko sarrerarekin)**

## URTE BERRI ON



Afalondoko giroa alaitzeko,  
Gregorio Mitxelena izanen dugu  
bere akordeoiarekin.  
Hamabietan mahatsak, eta  
ondotik... saski eder bat  
zozketatuko da.  
Goizaldera baratxuri zopak.

*Erreserbak egiteko  
deitu lehenbailehen*

© 948- 63 41 79

**ARANTZA**

## ETXANDI TXOKO erretegia

Entremes hotzak:  
Urdaiazpikoa,  
esparragoak eta langostinoak  
Entremes beroak:  
langostinoak plantxan eta almejak

.....  
Salda

.....  
Bixigua

.....  
Solomilloa guarnizioarekin

.....  
Era guzietako turroiak

.....  
Txanpaina mahatsekin

.....  
Kafea, kopa, ardoa eta ogia

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.200 Pta.**  
*Erreserbak egiteko deitu*

© 948- 45 04 91 / ITUREN



## HERRIKO OSTATUA ETXALAR

*Sorpresaz  
betetako  
menua  
dugu  
urte zabarra  
despeditzeko*

*Deitu aitzinetik  
lekua gordetzeko*

© 948- 63 52 90

**ETXALAR**



## ANSONEA JATETXEA

Ahate urdaiazpikoa eta Foie-Gras  
Izoki keztatua gurinarekin  
Txangurro pastela saltsa arroxaz  
Vieira eta ganba entsalada  
Kardoak almendrekin

.....  
Legatza onddo kremarekin

.....  
Solomilloa guarnizioarekin

.....  
Fruta konpota,  
era guzietako turroiak eta  
limoi sorbetea cavarekin

.....  
Chivite ardo gorria, ardozahar beltza  
Brut Cava, Kafea eta Kopak

.....  
Kotiloi-boltsa

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.300 Pta.**  
*Erreserbak egiteko deitu*

© 948- 63 00 72 / BERA



# T Hiruhilabeteko xokoa

Leitza eta  
Goizuetako Euskara  
Batzordeen  
Argitalpena

Argitaratzailea: Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordea. Tfnoak: 610636 (Leitza) eta 504400 (Lekunberri)  
Montajea, Maketazioa eta Banaketa: ttipi-ttapa

## Euskara merkataritza mundura!

Euskara aurrera edo atzera doan jakin nahi dugunean askotan eskolara edo udaletxera begiratzen dugu, baina badago hizkuntzaren osasuna nolakoa den jakiteko beste gizarzialor garrantzitsurik: merkataritza mundua.

Euskaraz bizi nahi badugu, ezinbestekoa izanen da egunero bisitatzen ditugun denda, komertzio, taberna, tailer edo establezimenduak ere euskaldunak izatea, hau da, euskara erabiltzea.

Baina ez bakarrik ahozko harremanetan. Oso normala da "rebajas", "abier-to de 10h a 12" edo antzekoak ikustea erabat euskaldunak diren establezimenduetan. Hau da, idazterakoan, edo erabiltzen ditugun paper, inprimaki, faktura, ohar, etabarretan, erdaraz egiteko joera nabarmena dago.

Udaletik, honen zerbitzutik, euskara batzordetik eta euskaltegitik egoera honi buelta eman nahi diogu eta horretarako plan bat prestatu dugu, merkataritza munduan euskara normalizatzekeo plangintza, hain zuzen ere.

Lehenbiziko fase batean, Goizuetako 28 eta Leitza 86 establezimenduetara hurbildu ginen, bertan euskararen egoera



Euskaraz bizi nahi baldin badugu, ezinbestekoa izanen da egunero bisitatzen ditugun denda, komertzio, tailer edo establezimenduetan ere euskara erabiltzea

ren nolakoa den jakiteko.

Informazio honekin bigarren fasea prestatu genuen eta azaroan lanari ekin genion: herriko establezimendu guztiei proposamena egin zitzaion. Alde batetik, euskararen erabilerara gehitu eta sendotzeko ahalegina eskatu zitzaion, gutxienezko konpromezu batekin.

Beste aldetik, Udaletik, euskara zerbitzutik eta euskaltegitik eskaintza bat ere egin zaie, honelaxe zehazten dena:

- Zuzenketa eta itzulpen zerbitzua: orain arte erderaz egin baina aurrerantzean euskaraz jarri nahi duten edozein idazki euskaratzeko edo zuzentzeko.

- Ikastaro berezia: establezimendu hauetan aritzen den jendearentzat propio prestatutako den ikastarotxo labur bat.

- Errotuloak euskaraz jartzeko dirulaguntza: euskaraz jarritako errotulotan, errotuloa egitea kostatzen den %50a ordainduko da,

30.000 pezetako mugarekin, beti ere.

Gure helburua lortzeko lehenbiziko urratsak ematen ari gara, baina fruituak lortu nahi baldin baditugu, dudarik gabe, lan honi segida eman beharko diogu urte guztian barrena.

Azkenik, eta ohi den bezala, euskaraz normal bizi ahal izateko guztien jarrera zein inportantea den gogorazi nahi dizuegu.

## Hau al da hitz egiteko modua?

Lehengo batean plazan ginela, ume batek amari hauxe zion:

– Ama, bazindut joan Mikelen etxera?

– (eta amak) Bai, bazinduzu... bainan betako etxean nahi zaitut.

Azken bolada honetan hitzetik hortzera darabilzigu honelako esanerak, eta luzera begira guk uste duguna baino kaltegarriagoak izan daitezke.

Arazo larriena ez baita umeak akats horiek egitea, larriei ohitura txar hauek transmititzea baizik. Haurrek denborarekin zuzentzen baitituzte logikaz egindako akatsak. Ume batentzat errezago da ‘ezin dut’ formatik “bazindut” asmatzea, “ez daiteke” esan beharrean, bainan holakoak helduen ahotik entzutean transmisioa alderantziz ematen ari dela datorkigu gogora.

Bistan dago beraz, gau-

Azken alean agindu genuen bezala oraingoan Jose M<sup>a</sup> Azpirozek egindako ‘Azkue jaunaren iztegia osatzeko, Naparroako Leitzeko bildutako itz-bilduma’ ezagutzen hasiko gara. Atal honetan hiztegi osoa argitaratzeak luze joko lukeenez, aukeraketa bat eskeiniko dugu.

Norbaitek osoa ezagutu nahi balu, Leitzeko liburutegian aurki lezake “Euskara” aldizkariaren XII. alean.

\* Azalpenak gureak dira, baina komatxoaren artean daudenak Jose M<sup>a</sup> berak emanak.

### GAIZKI

- X Ikusi dizut eskolan
- X Ikusi diot plazan
- X Es ke... berandu da
- X Es ke... da politagoa
- X Dago super ongi
- X Da super txarra
- X Nahi dut bokadillo
- X Bazindut
- X Daukat gose bat
- X Hotz bat egiten du
- X Nere zorionak dira
- X Ahal da hau egin?

### ONGI

- ☞ Eskolan ikusi zaitut
- ☞ Plazan ikusi dut
- ☞ Berandu baita
- ☞ Oso polita baita
- ☞ Oso ongi dago
- ☞ Ikaragarri txarra da
- ☞ Bokadilloa nahi dut.
- ☞ Badaiteke (Leitzan, baditteke)
- ☞ Goseak nago
- ☞ Hotz haundia dago
- ☞ Gaur urteak egiten ditut
- ☞ Hau egin al daiteke (ditteke)?

za guztiei bezala hizkuntzari ere erreparatu behar zaiola. Ez baita aski izaten haurrek euskaraz ikastea,

ezta euskaraz ikasteagatik ongi hitz egiten dutela pentsatzea ere.

Goiko aldeko koadroan,

Leitzako umeen artean erabiltzen diren zenbait esanera oker eta beraien zuzenketa ageri dira.

## Bitxikeriak

- **ABEARRI:** Etxe edo eraikuntza baten habeen azpian egoten den harria.
- **ADIERAZI:** Ulertarazi. “Ederki kostatzen zait, baño adierazi diot”.
- **ADIURRI:** Asko kostata ulertzen duena.
- **AIERRAK EGON:** Gogoia izan.
- **AIERRAK EMAN:** Uste izan. “Aierrak eman digu etorriko ziñela”.
- **AIZEBILDU:** Haize zurrumbilo.
- **ALDEN BESTE, ALDEZ ALDE:** Zeharkatu. “Aldende beste basurdea tiroz pasatu due”.
- **ASTERAUN:** Astegun, astelegun.
- **ATALGAIN:** Ateleihoia, ateez izaten dutena.
- **ATZERA:** Berriro. Zerbait berriro egin. “Beri bertatik asi atzera lan ortan; ez baitozo bear bezela bukatu”.
- **ATZERATU:** Lagun arteko harremanak hoztu.

- **AURRE ORTAN:** Duela gutxi.
- **AZPIKOAZ-GORA:** Alderantziz.
- **BEIRE:** Begira, esperoan. “Zuri beire ementxe gaude ordubete ortan”.
- **BERDENTZABART:** Herenegun gauean.
- **BEREBIZIKO:** Haundi, aparteko. “Berebiziko pilota partide ikusi degu gaur”.
- **BEREK GEIOKIN:** Arrazoia balu bezala (ez due-larik). “Txarkerie besterik ez due egin, ta berek geiokin daude”.
- **BEREXI:** Aukeratu. BEREZItik (separatu) bereizteko.
- **BEREZTU:** Nabarmendu.
- **BILLATU:** “Erlek billatu”. Erleei ezitia kentzea.
- **BIRAMONAGO:** Bi egun geroago.
- **BURRUKATU:** Burrukan irabazi. “Burruka eñ ondoren, beltzak txurie burrukatu du muturyokan”.

## Hizkuntz ereduen egoera Leitzako ikastetxeetan

Horrelako taulak ikusi ondotik eta behar bezalako ondorioak ateri ahal izateko, hainbat puntu kontutan hartu beharko genituzke:

— Orohar umeen kopurua jeitsi egin da, horregatik kopuruak aztertu beharrean, portzentaiak hartuko ditugu kontutan.

— Hiru eredu ezberdina erabili ditugu: 'A', 'B', 'D'.

• 'A' ereduak, ulergarria gera dadin, gaztelarazko irakaskuntza mota izanen litzateke, "Euskera" beste gai bat bezela duelarik.

• 'B' ereduak, nahasketa bezela hartuko genuke, gai batzuk euskaraz eta gaztelaraz besteak. Eredu hau Eskualdeko eskolan ez dago.


• 'D' ereduak euskal ereduak da, euskarazko irakaskuntza.

### Eskualdeko eskola

— Eskualdekoa izanik, 6. mailatik gora, Ezkurra eta Aresoko ikasleak ere Leitzara etortzen dira.

— Ikasle kopuruari dagokionez, azkeneko bost urte hauetan %21,82ko jeitsiera izan da ikasle kopuru orokorrari dagokionez.

— 'D' ereduak ikaslegoaren %80,72a zuen 1990eko ikasturtean eta aurtengo ikasturtean berriz, %94,18a. Ikasle kopuruari dagokionez, 444 ikasle lehen, 405 orain.



— 'A' ereduak berriz, orain dela bost urte %19,27a eta %5,81a bost urte pasa ondoren. Ikasleak, 106tik 25era pasa dira.

### Lanbide Heziketa Institutua

— Institutu honetara (lehen Lanbide Eskoladetzen zitaion) eskualdeko eta eskualdetik kanpoko

ikasleak ere etortzen dira.

— 90etik 94ra ikaslegoaren kopurua %49,9 jeitsi da, 158tik 94ra.

— Lanbide Heziketan Ereduak ez daude ezarrita, baina erabileraren arabera sailkatu ditugu.

— 'A' ereduak %83,5a hartzen zuen duela bost urte, %32,97a gaur egun. Ikasleak 132tik 31ra.

— 'B' ereduak 1992-93 ikasturtean "ezarri" zen eta orduraz geroztik gorabeherak izan ditu, %6,4tik %14,72ra eta azkenik %10,63ra pasatuz. Ikasleak, 9, 19 eta 10 aurtan.

— 'D' ereduak 26 ikaslekin hasita, %16,45a, bost urte iragan ondoren %56,38a lortu du, 53 ikasle izanez.

## Gerra Zibilaren kontuak Goizuetan

XALBA INDAKOETXEA

Badira 60 bat urte Gerra Zibila gertatu zela eta interesgarria iruditu zait orduan Goizuetan jazotako gertakari batzuei buruz zer-bait idaztea, seguru bait nago jende askok (batez ere belaunaldi gazteenak) ez dituztela ezagutzen.

30. hamarkadaren hasieran, Bigarren Errepublikaren etorrerarekin batera, gure herrian Sabino Aranak ereindako haziaren lehen fruituak jaiotzen hasiak ziren eta 1931.eko irailerako lehen alderdikideak izena emana zuten PNVn. 1932.eko uztailean Batzokia zabaldu zuten hilero 30 pezeta ordaindu behar zutelarik hau mantentzeko.

1934.eko hauteskundeetan PNVk 397 botu eskuratu zituen eta eskuindarrek 149 besterik ez zituzten bereganatu. Garai horretan PNVk bazituen 100 alderdikide, aipagarria izanik horietatik 40 bat edo, emakumeak zirela.

Franco altxatzearekin batera, uztailearen 19an hiru kamionetan etorritako erreketek herri guztia hartu zuten, baita udaletxea ere, eta han aurkitu zituzten Errepublikaren bandera eta honen alegoriazko koadroa txikitu. Ordu larri haietan nazionalistek beraien gauza baliotsuak, agiria eta Batzokiko ikurriña izkutatu zituzten.

Hurrengo egunean Ceferino Berroeta, naziona-

1934ko hauteskundeetan PNVk 397 botu eskuratu zituen eta eskuindarrek 149 botu.



listen buru egiten zuena, atxilotua eta gartzeleratua izan zen, nahiz eta handik laisterrera askatua izanzen lagun batzuen bitartekotzari esker.

Abuztuaren 14an, gaueko 10ak inguruan Goizuetako koarteleatik goardia zibilez, erreketez eta falangistez osaturiko talde bat atera zen Biuretako zentral elektrikora Jesus Ezkurra eta Ignacio Egaña atxilotzeko asmoarekin. Norbaitek salatu izan zituen pistola bat gordetzen zutela esanez. Bertara ailegatu zirenean argia moztu zen eta taldekoak ikaratu egin ziren. Une horretan zentraletik Lucio Gisasola atera zen eta berari leporatu zioten ekintza hau. Hitz gogor batzuk elkarren artean izan-

da gero tiroz bota zuten zentralerako atearen aurrean. Gero beste biak atxilotu eta Iruñeko gartzelan eduki zituzten hiru hilabetez.

Irailaren 18an, Antonio Alba atxilotu zuten gorrien zelatari zelakoaren akusaziopean eta honekin batera, berriro, Berroeta. Lau hilabete pasa zituzten gartzelan.

Udazkenean, bi gaztek Goizuetako Juana ostatuan gosaldurako ondoren Leitza-rako bidea hartu zuten. Norbaitek salatu, Goizuetako goardia zibilek atzeman eta bertan afusilatu zituzten. Hau egin eta Benta Berrira joan ziren ekin-tza hau ospatzera akordeoi eta guzti. 1937ko urtarrila-ren 16an Victor Lekaroz, udaletxeko idazkaria, atxi-

lotu zuten abertzale ezker-tiarra zelako. Apirilaren 4an askatu zuten.

Errepresioaren azken hatzamar-kada 1939.ko Korpus egunean gertatu zen (dagoeneko gerra bukatua zen), Bibiano Tomase-na atxilotu baitzuten, fami-liko batzuei Iparralderako muga pasatzen lagundu zie-lako akusaziopean. Bost hilabete pasa zituen gar-tzelan.

Aipatzekoa da tropa na-zionalen garaipenak ospa-tzerakoan, behin alkateak udaletxeko balkoitik bota-takoa:

«Anai eta arrebak sumatu al dituzue bart arratseko tximistak eta trumoiak? Haiek ziren haiek "ezker-rren" azkeneko puzke-rrak...».



Urdaiazpiko eta Solomo Iberikoa  
Izoki keztatua

Entsalada epela barazki eta  
ahateki goxoekin

'Volovan' betea onddo foie eta barazki  
xigortuen saltsarekin

Langostinoak plantxan

Rodabailoa labean txangurro saltsarekin

Orein Solomoak goarnizioarekin

Crocanti Biscuit-a piñoi saltsan

Turroi desberdinak

Ardoak, Puig Munts Cava

Kotilioi boltsa eta mahatsak

Kafea eta kopak

**PERTSONAKO PREZIOA: 5.500 Pta.**

Erreserbak egiteko deitu

☎ 948- 63 09 67 / BERA



## AMEZTIA JATETXEA

Ahate Patea

Urdaiazpiko Iberikoa

Marisko nahaskia

Txangurroa labean egina

Solomilloa guarnizioarekin

Turroi desberdinak

Ardoak, Txanpaina, Kafea eta Kopak

Mahatsak

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.500 Pta.**

Erreserbak egiteko deitu

☎ 948- 45 00 28

DONEZTEBE



Urdaiazpiko Iberikoa  
Marisko nahaskia

Foie-Mousse ahate urdaiazpikoarekin

Frito desberdinak

Almejak saltsan eta langostinoak  
plantxan

Legatz-solomoak saltsa berdean

Solomilloa plantxan goarnizioarekin

Crocanti Biscuit-a piñoi saltsan

Turroi desberdinak

Ardoak, Puig Munts Cava

Kotilioi boltsa eta mahatsak

Kafea eta kopak

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.200 Pta.**

Erreserbak egiteko deitu

☎ 948- 63 09 67 / BERA

## ALBATETXEA JATETXEA

Txerriki eta  
urdaiazpiko iberikoak

Langostino-entsalada

Legatz-betea

Solomilloa onddoekin

Juanileta turroi-izozkiarekin

Ardoak, Turroia, Kafea eta  
Kopak

Txanpaina eta Mahatsak

**PERTSONAKO PREZIOA: 4.200 Pta.**

Erreserbak egiteko deitu

☎ 948- 62 76 37

LESAKA



**Gida 95**



**ttipi-ttapa**

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako  
**PROFESIONAL, KOMERTZIO eta LANTEGI** guztien

# Gida Komertziala

orain, **ttipi-ttapa**k argitaratua

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

**ERREGETAKO  
 ERREGALO POLITA  
 EGIN NAHI BADUZU  
 HEMEN DUZU  
 DESBROZADORA**



**JUAN LARREGI**  
 NEKAZAL TRESNERIA

MOD. 235 R  
**69.923 Pta.**  
 BEZ barne



MOD. 245 R  
**89.550 Pta.**  
 BEZ barne



MOD. 245 R  
**119.336 Pta.**  
 BEZ barne






**Auto, Kamioi, Traktore...  
 Kubiarta lehertuak eta  
 zulatuak konpontzen  
 ditugu**

**54.358 Pta.**  
 Zaharrarengatik  
 14.631 Pta. ordainduz


Tarifako Prezioa: 66.989 Pta.



MOD. 45

**66.461 Pta.**  
 Zaharrarengatik  
 16.625 Pta. ordainduz


Tarifako Prezioa: 83.086 Pta.




MOD. 55

**104.983 Pta.**  
 Zaharrarengatik  
 26.540 Pta. ordainduz

Tarifako Prezioa: 131.523 Pta.



MOD. 272



**PROMOZIO  
 BERRIAK  
 MOTOZERRETAN** 





# Kultur Egunak urtarrilaren 5, 6 eta 7an burutuko dira

Aurtengo ekitaldiak iazkoen bide beretsutik joanen badira ere, zenbait berrikuntza sartuko dira

IBAN ISASI

Aurtengo Kultur egunen egitaraua zehazteko bilera, Iturenko Herriko Ostatuan burutu zen abenduaren 5ean gaueko 10etan. Aktibitateak noiz egin luze eztabaidatu ondoren, erabaki zen urtarrilaren 5, 6 eta 7an eginen zirela.

Iazkoaren bide beretsutik, aldaketa txiki batzuk sartu dira. Guzti hauen berri hurrengo alean zehatzago kontatuko dugu oraindik orain gauzak konkretatu gabe baitaude.

## Mantenimendu gimnasia

Aitzineko asteotan burutzekoa zen mantenimendu gimnasia talde bat antolatzeko bilera. Honez gero urte



Kultur Egunek, besta giroa ekarriko dute berriro Iturenara

Argazkia: ARTXIBOA

batzuk badaramazkitezoinketamota hau praktikatzen negu aldean Herriko Etxeko ganbaran. Aurtengoan ere horretarako animorik ez dela falta ematen du,

eta antolatzaileen erranetan, "adin eta pertsona guztiei zuzendutako kirol osasuntsua da". Nahi duenak badu izena emateko aukera.

❖ **Aitzineko alean,** Zubialdeko bordako zerri granja Leidan sarritua izan zela aipatzen genuen. Parte hartzeko izendapena jaso zuen, baina saririk ez.



## Jexux Juanena bapatean hil zen

Jexux Juanena, 41 urteko oitza bapatean hil zen azaroaren 30an, bihotzekoak jota. Jexux, laxoaren bultzatzailea izan zen bere herrian. Oitza ekipoarekin laxoa txapelketako txapel-dun izan zen, 1983 eta 84an. Laxoaren Lagunen elkarte kidea zen.

## GURUTZE

Gabonetarako: Liburuak, ipuinak, opariak eta gainera...



Eskola materiala, urtebetetze boltsak aurkituko dituzu

Karrika Nagusia, 2 • ☎ 45 03 89 • DONEZTEBE




## Haurrendako Moda

Elizagibela 4  
☎ 450881 • DONEZTEBE

- Jaio berriendako Arropa.
- Pijamak, batak eta konplementoak

## DESKUENTOA DENBORALDIKO ARROPETAN

Txandalak, zamarrak, atorrak, konjuntioak, jertseak, mallak, poloak, petoak, txalekoak, forroak...



Erlojudenda  
Bitxidenda



- **Erlojuetan:** Lotus, Festina, Racor, Casio
- **Bitrietan aukera zabala duqu:**
  - 18 kilateko urrezko belarrirakoak 3.000 pezetatik goiti.
  - 18 kilateko urrezko eraztunak -harri fina- 5.000 pztatik goiti.
- **Bitxiei edozein konponketa egiten diegu**
- **Zure Urrezko pieza zaharrekien berriak eginen dizkizugu.**

KANTTONBERRIA, 8 • TFNOA: 63 07 51 • BERA  
MERCATARIEN KAR. • TFNOA: 45 15 19 • DONEZTEBE

**Goizueta**

# Herriko Etxearen egoera penagarria pixkanaka konpontzen joanen da

Beheko solairuan egingo da mediku kontsulta berria

ESTEBAN AROZENA

Herritar guztiek ongi dakite udaletxearen egoera penagariaren berri. Baita, azken urte hauetan bertatik igaro diren korporazio ezberdinek Iruñeko administrazioaren aurrean egindako gestio eta esfortzuen berri ere. "Hirurteko Plana"ren barnean esate baterako, ez da inoiz onartu dirulaguntzarik Herriko Etxearentzat.

Baldintza hauek kontutan harturik, beste bide bat hartu du oraingo udal korporazioak behin betirako obrei ekin ahalizateko: zatika konpontzea. Horrela, lehengo asmoak aldatuz, medikuaren kontsulta beheko solairuan egingo da, eta seguraski



Joxe Manuel Oiartzabal eta Luis Lujanbiok oilagor bana bota zuten

Arg.: Xabier Mikel

informazio hau etxetara ailegatu orduko obrak hasiak egongo dira. Osasunbideak ematen duen dirulaguntzarekin kontsultaz gain, lehenengo solairuan dagoen etxebizitza

konponduko da larrialdietarako medikua bertan egon dadin. Honetaz gain, teilatuauren aurrekontua ere prest dago, eta badirudi, horretarako ere Iruñetik berri onak etorriko

dirrela. Hurrengo pausoa bulegoen solairua konpontzea izango litzateke.

## **Oilagor lehiaketa**

Joxe Manuel Oiartzabalek irabazi zuen

herriko ehiztarien elkartek antolatutako I. Oilagor lehiaketa. Oiartzabalek bezala, Luis Lujanbiok ere oilagor bat bota zuen bost orduko ehizaren ondoren, baina federazioaren arauak aplikatuz andoaindarrak jaso zuten lehen saria. 7 ehiztarik parte hartu zuten lehen edizio honetan.

## **San Andres eguna eskolan**

Urtero bezala, bertso jai ederra antolatu zuten herriko eskola-koek San Andres eguna ospatzeko. Xabastian Lizaso eta Andoni Egañak kantatu zuten, eta ez dago esan beharrik nolako giroa zegoen Andres NARBARTE 'Xalto' eskoletako jangelan saio osoan zehar.

## IRU LAGUNAK

TAILERRAK



Otsango Auzoa  
Adu 16 Industrialdea  
Tel/Fax: (948) 637436  
(Etxebeste zerrategiaren ondoan)

## LESAKA

- KOTXE, KAMIOTI eta GABARRAK
- TXAPA eta PINTURA ILANAK
- PINTXAZOEN MOLDAKETAK
- KUBIERTA ALDAKETAK
- ELEKTRIZITATEA

*Eguberri eta Urteberri Zoniontsua opa dizuegu*





# Pisu tutelatuak egiteko bi milioi t'erdiko subentzioa jaso du udalak

Zortzi etxebizitza egiteko asmoa dago eta laguntza honekin arkitektuaren proiektua ordainduko da

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuak, Ricardo de Leon Ongizate, Kirol eta Etxebizitzetako kontseilariaren bitartez 2.536.356 pezetako dirulaguntza eman dio udalari apartamentu tutelatuak eraikitzeko.

Mota honetako zortzi pisu egingen dira, hirugarren adineko jendeari zuzenduak eta subentzioa, proiektu arkitektonikoa idazteko eman da. Eraikuntzak hiru planta izanen ditu. Pisuetaz gain, etxebizitzetan administrazio, instalazioak, komedorea, sukaldea, labandaria eta egongela zerbitzuak eskeiniko dira. Logela bakoitzak leiho bat izanen du kanpoko aldera begira eta paretan sartutako armarioa izango du. Bainugeletan berriz, larrialdi kasuetarako botoi bat izango dute.

Pisu tutelatuak udalaren lur eremu batean



Osasun zentrora joateko bidea enbretzeko enkargua emana da, azken plenoan esan zenez. Orain, abudo hastea bakarrik falta da.

Arg.: ARTXIBOA

eginen da, bonberoen parkea eta 'Txantreas' izeneko etxeen artean.

## Nitxoak kanposantuan

Kanposantuan nitxoak egiteko proiektua enkargatu du udalak. Aurreproiektuaren arabera hiru modulo egingo dira. Hirurogeita hamabost lagunek eginga dute erosteko eskaria dagoeneko.

## Maimurreko ormigoi planta kenduko dute

Alkateak, azken udal batzarrean esan zuenez, urte bukaerarako Maimurreko ormigoi planta kenduko dute.

Abuztuan Amazabaleko hirurogeita hamasei bizilagunek ormigoi planta hau

lehenbaitlehen kentzeko eskaera aurkeztu zioten udalari. Afektatu hauek esandakoaren arabera, beraien bizi baldintzak nabarmenki txartu dira, planta horrek sortzen duen hautsa eta soina dela eta.

## DV pilota txapelketa

Diario Vasco eta Euskal Telebistaren artean antolatu duten pilota txapelketako azke naurreko partidua Leitzako pilotalekuan jokatu da, abenduaren 31an, eguerdiko 12etatik aurrera. Txapelketa honek afizionatu mailako pilotari hoberenak biltzen ditu.

KRISTALDEGIA

eta **SAN**  
ALUMINIOA

**MARCIAL**



ERAKUSKETA eta SALMENTA

↳ Eskaparateak    ↳ Biselatuak  
↳ Ispiluak        ↳ Bidrierak

CIPRIANO LARRAÑAGA, 4 behe. IRUN

☎ 943-61 48 47 Tel. Mugikorra: 908-773275

Gizonezkoen Moda

**GURY**



Miguel Angel Cuartango Gury

Mendelu 53 • ☎ (943) 64 18 41 • 20280 HONDARRIBIA



# Igande honetan aukeratuko dira hamabortz herrietako alkateak

Batzango Batzar Nagusiak aparteko bilera egin zuen azaroaren 29an alkate-aukeraketa sisteman aldaketa ttiki batzuk sartzea onartuz

**JOSEBA IGARABIDE**

Azaroaren 29an bildu zen Baztango Batzar Nagusia herrietako alkate berrien aukeratzeko arautegian aldaketa ttiki batzuren sartzea eztabaidatzeko. Gaiak eztabaida frango sortu zituen Batzarre Nagusia osatzen duten 32en artean. Azkenean, Baztango Ordenantzen Lehen Kapituluak zenbait aldaketa sartzea ahobatez onartu baldin bazen ere, batzarkide gehienek aitortzen dute hutsune nabarmenak daudela Ordenantza hauen baitan.

Onartutakoaren arabera, zentsoa aste bat lehenagotik agerian jarriko da; Batzarrea goizeko 10etatik 5etara egonen da idekia eta hautagairik ez balego, urteberri egunerako bertze batzarrea deituko zen. Alkatea ez da izaten ahal mahaiaren presidente, ezta udal kontzejalak ere aldiberean herriko alkategai.



Hemendik aitzinerat alkategai bakarra aurkezten den herrietan, ez da botaziorik egingen, eta bera izanen da alkate automatikoki Arg.: Artxiboa

## Elizondoko komertziantek ferianteen konpetentziagatik kexu

Ortzegunero egiten den feriak Elizondoko merkatariei kalte ekonomikoak sortzen dizkiela eta, bileran zuten Elizondoko komertziantek eta Baztango udal-ordezkariek. Elizondoko kexu dira astero kanpotik etortzen diren

saltzaile hauek hartu duten indarrak, eta arazo honen aitzinean Baztango udalak erabakiren bat hartzea eskatzen dute. Feria astero egin beharrean 'hamabortzetik behin' egitea eta Elizondoko arkupetan egin beharrean 'herritik kanpo'

kokatzea planteatu zioten aterabide bezala komertziantek Baztango udalari. Udalak bere aldetik gaia aztertuko zuela agindu zien, bertez herritan (Lesakan errate baterako) gai honetan egin dutena ikusi bidenabar.

### ttipi-flash

- ❖ **Erakusketa Arizkunenean**  
Zortzi margolari eta eskultoreren lanak ikusgai daude Arizkunenea Kultur Etxean. Erakusketa abenduaren 3an zabaldu zen.
- ❖ **Turistak**  
Abendu hasierako besta egunak aprobetxatuz, batez ere bizkaitarrez eta katalanez bete dira Baztan aldeko turismo etxeak.
- ❖ **Bertsotaria Amaiurren**  
Lizaso eta Agirre bertsolariek eta Jose Angel akordeoi-lariak animatu zuten Amaiurko elkartearen abenduaren 9an egin zen afaria.
- ❖ **Almandozko gazteek**, mendian duten elkarte batean ospatuko dute aurtengo Urte-Zahar gauda.

**ARLA**  
**ARDOTEGIA**  
Ardoak • likorrak • freskagarriak  
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

**ERRATZU**  
**OKINDEGIA**  
zure eguneroko ogia  
453168 - ERRATZU

  
**Pierresenea**  
**OSTATU - JATETXEA**  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORNOZ-MUGAIRI

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**EGUBERRIETAKO ERREGALOAK**

Zeramikak, egurrezko kajak, larruzko gerriko eta motxilak, arropak

URTERO BEZALA, ERREGE BEZPERAN  
ERREGALOA ZOZKETATUKO DUGU  
EROSKETAK EGIN DITUZTENEN ARTEAN



# Danoneren geroak arront kezkatuak ditu Baztango nekazariak ere

Gaur egun, enpresa honek Baztango 68 baserritatik 17.500 litro esne biltzen ditu egunero

JOSEBA ETA PABLO

Baztango 68 baserriatik egunero 17.500 litro esne inguru biltzen ditu Danonek, eta enpresa honek Ultzaman duen lantegia ixteko duen asmoa karrikaratu denetik, kezkatuak dabilta esne-saltzaileak. Danoneko ordezkariak Baztango ganaduzaleekin egin dituzten bileretan, 'esneabiltzen segituko dutela' erran dute hauen urduritasuna lasaitzeko. Halere, nekazariak kezkatuak segitzen dute eta etorkizunean eraginak ikusiko direla uste dute. Ultzama aldean egoera kezkarriagoa bada ere, Baztanera ere iristen da fabrika horren eragina.

Belateko obrak direla eta, Almandozko Eskasenea baserria erori da azaroaren 30ean. M<sup>a</sup> Eugenia, Eskaseneako jabeak dioenez, obrako teknikoek «ez zela deus gertatuko» erraiten zioten, baina Mariezkurrenari kontsultatu eta honek balioko gauzak ateratzeko aholkatu zion. Orain, kalteordaina eskatuko du jabeak.

Bertzalde, Nafarroaren Egun alternatiboa ospatu zen. Amaiurren ekitaldi politikoa eta karrika pasa Elizondon eta herri bazkaria frontoian.



Arg.: PABLO

Arg.: T. Urtroz

ttipi-flash

## ❖ Ardi esnea

Sasoi berria hasia denez, ardi-esne biltzaileak bilerak egiten ari dira baserriarrek. Bildotsak salduxeak daude, eta azken urteotan gero eta gehiago dira ardi bakoitzari bi bildots kentzen dizkietenak. Hobeki bazkatuak direla seinale da.

## ❖ Zinea herri guzietan

Baztandarren Biltzarrako gazte sailak antolatuta, filmea emanaldiak izanen dira eguberrian: 18an Ziga eta Anizen, 23an Gartzain eta Lekarotzen, 24an Almandoz eta Berroetan, 25an Arizkun eta Elizondon, 30ean Elbete eta Iruritan, 31an Mugairin, 1an Arraioz eta Amaiurren, 6an Elizondon eta 8an Azpilkueta eta Erratzun.

**KIWI BAZTAN, S. A.**

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN  
ZUZENEKO SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea  
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01  
Fax-a: (948) 58 11 01

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle

**FZ**

FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO  
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure  
karreteak ORDU BATEZ ERREBELATZEN  
ditugu "FUJI" kalitatearekin

**VIRGILIO OINETAKOAK**

1922an fundatutako etxea

☎ 58 02 09 • 58 02 79  
Santiago 32 • ELIZONDO

Larunbat eta igande goizetan irekita!





# Mitxu Dutournier, ez adiorik, ikus arte

Santa Katalina egunean ehortzia izan zen "Ibantely" etxean bizi zen eta herriko elkartetan parte hartze handia izan duen gizona

MIXEL ETA JACQUELINE

Mixel zuen izena eta deitura Dutournier, baina denek 'Mitxu' erraiten genion. Santa Katalina egunean ehortzia izan da Mitxu, 'Ibantely' etxean bizi izan den aita familiako ezaguna eta herriko bizitzan parte handia hartu duena, bereziki elkartetan lan eginez.

Jende aunitz bildu zen Sarako elizan eta azken agurra maitatua izan den neurrian egina izan zaio. Doluminak familia guziari.

## Suko egurrak

Negua hurbiltzen ari dela eta, saratarrek suko egurra ukaiteko aukera badute, laurehun libera ordainduz geroz. Inte-



Berriki Paul Dutournier (Mitxuren anaia) zenari oroigarri bat jarri diote Lizuniagan

Arg.: HERRIA

resarua denak bere ize-na lehenbaitlehen eman dezala Herriko Etxean. Hilabete hunen 18an goizarekin xortean tiratuko da herriko oihanetan diren egur lotak.

## Santa Katalina kaperan obrak hasi berriak

Eliza baten antzekoa den kaperan hau hetsirik zegoen hogeita bortz urte hauetan. Herriko Etxeak eta parrokiak erabaki dute hunen an-

tolatzea. Obrak hasi berria dira eta lehenbiziko lana teiltatuaren berritzea eta paretan enbokaduren azkartzea izan da.

Ez da dudarik, heldu den urtean, aspaldiko partez, Olhalde auzoak bere kaperan ohoratzen ahalko duela Santa Katalina.

**ttipi-ttapa**

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle

**SASKAITZ**  
fontanería  
calefacción

GA

Empresa colaboradora de  
**REPSOL**  
AUTANO

**Era guztietako instalazioak:  
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • **ELIZONDO**

**ARMUA**  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 9131- **URDAZUBI**

**QSS**  
FOTOS EN 1 HORA

**ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU**

**EZKONTZETAKO ERREPORTAIK**

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

**ELIZONDO**  
Tel. 58 01 55

**DONEZTEBE**  
Tel. Fax. 45 08 25

**FOTO MENA**

- \* Jardinak apaintzeko landareak
- \* Barneko planta extranjerotik ekarria
- \* Marokkoko artisau lanak
- \* Koroiak
- \* Ezkontzarako apaingarriak

**ESTHER**

**LOREDENDA • GARDEN CENTER**

**MERKEALDIK** jardinetako osagarrietan

Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**

## Hamekagarren mus txapelketa laister hasiko da Indianobaitan

Bertzalde, Manuela Azkarragak egingen ditu eskola eta mediku kontsultaren garbiketa lanak

ALIZIA OLAIZOLA

Indianoabaitan, Karretero etxean, gehienak deitzen dugun bezala, ohitura segituz laister hasiera eman zaio XI. mus txapelketa. Bikoteek abenduaren 11a arte zuten epea izena emateko.

### Aukeratu da medikuaren kontsulta eta eskolaren garbitzailea

Eskeintzak aurkezteko epea bukatzerakoan bi eskeintza aurkeztu ziren. Mercedes Sansiñena Suhasek,



Azkeneko mus txapelketan Domingo Borda eta Patxi Bengoetxea suertatu ziren txapeldunak

300.000 pezetaren truke eskeini zuen garbiketa zerbitzua. Manuela Azkarraga Arburuak berriz, urteko 264.000 pezetaren truke. Udalaren ustez, azken hau da eskeintzarik onena eta berak garbituko du urtebetez eskola eta mediku kontsulta.

### Heriotza

Heriotza bat izan da herrian, aurtengo hirugarrena. Abenduaren 4an hil zen Xelaite-rreneko Josefa Iturburu Etxeberria, 80 urtekoa.

## Zortzi eguneko aretzea ebatsi dute Berraberriko belagitik

Bonifacio jabea, burutik operatu ondotik lanik ezin egin zegoela aprobe txatu zuen lapurrak

KORO ETA MARGARI

Zalditik erori ondotik burutik operatu behar izan zuten Bonifacio. Errekuperatzen ari zelarik izan zituen bisitak, ohitura den bezala; zoritxarrez bertze 'bisita' klase bat ere izan zuen. Egun hoietan, berak ezin lanik egin zegoelarik ebatsi zioten Beraberriko belatetik 8 eguneko aretze bat, Hori egitea berez txarra baldin bada, nori eta nola eginga den, txarra goa da oraindik.

### Ezkontza

Urte guztian ikusi ez genuena, joan den la-



runtanean ikusi ginen: ezkontza bat. San Francisco egunean Be-

goña eta Faustino ezkondu ziren. Sekulako espektaziona sortua

Begoña eta Faustino, aurtengo izan dugun ezkontza bakarraren protagonistak. Aspaldiko partez, gainera, Zugarramurdira ezkontzen diren lehendabizikoak dira.

zen, gero eta gutiago ikusten baitire herri huntan halakoak. Gai-

nera bikotea Zugarramurdin gelditzen da bizitzen.

### Haurrentzat ekitaldiak

Abendua, sasoi polita da, haurrentzat batez ere. Abenduaren 4an frontoi zaharrean karrika antzerkia izan zuten, Marimbataldeak 'Jotxopin Makina' eskeini zuen; eta 6an Lekuberrian Koldo Ameztoti ipuin kon-dalariak ixtorio pila bota zituen. Herrian ez da aunitz haurrik, bainan egon zirenak pozik eta gainera parte hartuz egon ziren.

## EZKONTZAK

**Faustino Etxabe** eta **Begoña Olhagarai**, Elizondo eta Zugarramurdikoa, abenduaren 3an.

**Juan Miguel Saizar Leiza** eta **Lurdes Ardanuy Garcia**, Berastegi eta Leitzakoa, azaroaren 12an.

**Jose M<sup>o</sup> Etxeberria Elizalde** eta **M<sup>o</sup> Nieves Arozena Loiarde**, Goi-zuetakoa, abenduaren 3an.

**Manuel Zamorano Aguilar** eta **Maria Duarte Hueso**, Lesakakoa, abenduaren 4an.

**Javier Etxepare Robles** eta **Avelina Taberna Telletxea**, Irun eta Alkaigakoa, azaroaren 18an.

**Jose Antonio Menta Soubelet** eta **Miren Edurne Hernandez Rodriguez**, Urdazubi eta Bilbokoa, azaroaren 12an.

**Joseph Marie Organbide Goñi** eta **M<sup>o</sup> Isabel Elizagoien Etxegarai**, Elizondo eta Arraiozkoa, azaroaren 26an.

**Francisco Javier Bergera Apeztegi** eta **M<sup>o</sup> Begoña Gonzalez Iribarren**, Erice de Atez eta Elizondokoa, azaroaren 26an.

## JAIOTZAK

**Amaia Elizagoien Varela**, NARBARTEKOA, azaroaren 29an.

**Iñaki Zabaleta Sukunza**, Leitzakoa, azaroaren 15an.

**Asier Irazoki Indaburu**, Berakoa, azaroaren 24an.

**Asier Camino Iñarrea**, Amaiurkoa, azaroaren 18an.

**Antxon Peña Lournaga**, Elizondokoa, azaroaren 22an.

**Beñat Maia Antxorena**, Etxalarkoa, azaroaren 13an.

**Aitor Danboriena Altzuguren**, Etxalarkoa, azaroaren 19an.

**Arantxa Etxebeste**, Sarakoa, azaroaren 18an.

**Joan Uhart**, Sarakoa, abenduaren 1an.

## HERIOTZAK

**Josefa Iturburua Etxeberria**, Urdazubikoa, abenduaren 4an, 80 urte.

**Jose Luis Mitxelena Olaizola**, Goi-zuetakoa, abenduaren 3an.

**Antonio Perez Vega**, Berakoa, azaroaren 29an, 58 urte.

**Elisardo Tamayo Torre**, Elizondokoa, azaroaren 20an, 82 urte.

**Maria Armendariz**, Elizondon, azaroaren 25ean, 89 urte.

**Micaela Villanueva Erneta**, Elizondon, abenduaren 3an, 79 urte.

**Angel Maia Amorena**, Arizkungoa, abenduaren 3an, 65 urte.

**Mitxu Dutournier**, Sarakoa, azaroaren 23an, 81 urte.

**Anje Agirre**, Sarakoa, abenduaren 3an, 75 urte.

**Jesus Juanena**, Oizkoa, azaroaren 30ean, 41 urte.

# 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,  
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,**

**4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,**

**2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,**

**dekorazio denda bat, supermerkatu bat,**

**aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,**

**bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,**

**hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.**

**Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial

**LUIS  
MARIANO**  
Irun



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak ..... 088/061

### Osasun Zentruak

Elizondo..... 452367 / 580235  
Doneztebe ..... 450300  
Lesaka..... 637428 / 637336  
Leitza ..... 510248 / 510573

### Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea ..... 102100  
SSko urgentzi

zerbitzua ..... 246750

### Virgen del Camino

erresidentzia ..... 109400  
Gurutze Gorria ..... 226404

### Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea ..... 614600  
Gipuzkoako ospitala ..... 460299

Erresidentzia ..... 453800

### Anbulatorioak

Irun ..... 630264/621106

### Anbulantziak

Oitz ..... 450242/450342

### DYA

#### Lesaka

(larrialdiak).....(943) 464622

#### Doneztebe

(larrialdiak).....171717

### FUNERARIA

Doneztebe ..... 637404

Elizondo ..... 580924

Lesaka..... 637404

### Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire ..... 592255

### Garraioak

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzaran ..... 515018

### Aberiak:

Iberduero ..... 450335/450336



Horrelako irudiak ikusiko ditugu egunotan gure herri eta auzoetan. Olentzero bere urteroko bisita egiteko prestatzen ari den bezala, eskualdeko neska-mutikoak ere prest daude merezi duen ongi-ettorria emateko. Lesakan, errate baterako, lehiaketa izanen dute aurten ere, bertze herri batzutan etxez etxe eta auzoz auzo ibiliko dira koadrilak eskean.

## Bertizko Merkatal Elkargoaren bidaiak

Bertizko Partzuego Turistikoko Merkatarien Elkarteak zozketatutako bidaietan sarituak suertatu zirenetako batzuk berriaz etxean ditugu, astebez hor barna ibili ondotik. Etxalarko Teresa Indaburu eta Pedro Galarregi Tennerifen joatekoak zi-

ren, Elgorriagako Arrosatxo Ibarra eta Arantxa Arregi bezalaxe. Nartebateko Carmen Larraburu eta bere laguna Palma de Mallorcan izan dira eta Elizondoko Asun Iturria Montecarlon. Bertze bi sarituak ez dira agertu eta bidaiarik gabe gelditu dira.

## Itziar Iguzkiagirre izanen da drogomenpekotasunen aurkako aditua Bortzirietan

Itziar Iguzkiagirre Urtxegi igantziarra izanenda Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean drogomenpekotasunen prebentziarako adituaren lanpostua beteko duena.

Lanpostu hau denborabaterako izanenda eta johan den azaroaren

22an egindako azterketan onena izan ondoren eskuratu du Itziarrek. Guztira Bortzirietako bortz lagun aurkeztu ziren probara eta igantziarraren ondotik, Ainhoa Arburua Juanikotena etxalartarra gelditu zen puntu erdi bat baino guttiagora.



**aqwerteta S.L.**

MOBLE ETA BULEGO MAKINAK

ESKAINITZA BEREZIA

IDAZMAKINA  
ELECTRONIKOA T.A. 110



PREZIOA: **19.500** Pta.

Soroxarta Polig. 3-A B.º Anaka. 20300 IRUN  
Tfnoak: 943/ 61 02 22 - 61 44 34 == Faxes: 943/ 61 44 34



## MENDI BIZIKLETAK

Haurrentzat **15.180** pezetatik goiti  
Koxkorrentzat **19.170** pezetatik goiti  
Helduentzat **20.700** pezetatik goiti  
Aluminiozkoak **62.000** pezetatik goiti

**ALFA-LAVAL**

**OFERTA Suspensioetan • 15.000 pezeta**

Elizondorako errepidea • ☎ 452292 • IRURITA

**DATUAK**

- ❖ Inaxio Errandonea 30 urteko pilotaria da.
- ❖ Alkaiaga auzoan jaio zen eta gaur egun, Beran bizi da.
- ❖ 18 urtez geroztik profesionala da. San Francisco egunean bete ditu hamabi urte, binakako txapelketako partidu batean.
- ❖ Aurtengoan, banakako txapelketa nagusian eta lau t'erdikoan finalista izan da, nahiz eta biek galdu.
- ❖ 10 urtetan hasi zen pilota eskolan, Luis Pikabea irakasle zuela. Infantiletatik hasita hainbat txapelketa irabazi zituen. Profesionalean binakako txapelketa bi urtez irabazi du.

Inaxio ERRANDONEA:

# «Txapelketa mailan, aurtengoa izan da nere urterik onena»

**AURTENGOA IZAN DA ZURE URTERIK ONENA PROFESIONAL BEZALA?**

Denborarekin kon- turatzen zara zein in- portantea den txapel- ketetan ongi ibiltzea. Aurten binakako parti- duetan nahiko gaizki ibili naiz, baina txapelketetan ongi, eta hori, prentsarentzat in- portantea da. Txapel- ketetan aurtengoa izan da nere urterik onena.

**INORK EZ ZUEN ZURE ALDEKO APOSTURIK EGITEN ETA BI FINALETARA IRITSI ZARA. NON EGON DA SEKRETUA?**

Joan den urtean hasi nintzen banakako txapelketarako entrena- mentu berezia egiten Biarritzen. Oso entrena- mentu fuertea izaten da eta izugarritzko re- sultado ona eman dit. Txapelketa aitzinetik nahiko mottel ibiltzen naiz, baina txapelketa- ra nahiko ongi ailega- tzen naiz.

**LAU T'ERDIKO FI- NALEAN, EUGI ONGI EDO ZU GAIZKI IBILI ZINEN?**

Auniztan gaizki ibiltzen zara bertzea ongi aritzen delakoz. Edozein moduz, pelot- ean nahiko kontent gelditu nintzen. Kon-



tutan hartu behar da zazpi sake galdu eta bi sake falta egin nuela. 9 tanto dira, ia partidu er- dia. Sake horiek altxa- tuta ere zaila izanzen irabaztea, Eugi izu- garrri ongi jokatu bai- tzuen, baina lan ge- hiago emanen nion.

**NOIZBAIT TXAPE- LAREKIN IKUSIKO**

»Nere aurrelariak tantoa bukatzen jakitea aunitz estimatzen dut. Kontrako atzelarian berriz, ezker- ra ona izatea da gehien errespetatzen dudana kualidadea»

**ZAITUGU?**

Esperantza badut, orain, zaila da. Orain arte nere buruari erra- ten nion banaka aritze- ko ez nuela balio eta aurten probatu dut, se- rio hartu dut eta resul- tadoa eman dit. Hu- rrengo urtetan ere egi- nahalak egingen ditut.

**BINAKA ARITUZ, ZER DA ZURE AU- RRELARIAN GEHIEN ESTIMATZEN DUZU- NA?**

Tantoa bukatzen duena gustatzen zait. Jendearentzako ere pi-

lotaren gauzik politena da aitzineko saltsa. Ti- tin edo Unanuekin gustora jokatzen dut. Retegik atzelaria ge- hiago laguntzen du...

**ETA KONTRARIO- AN GEHIEN ERRESPE- TATZEN DUZUNA?**

Ezkerra ona izatea. Nahiz eta fuertea jo ezker- ra mottel xama- rra badu, hor badu zulo bat. Nik dexente arri- matzen dut pilota eta mina egiten ahal zaio. Arretxe, Galarza edo Elkorokontrariozailak dira nerretzat.

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
ARTXIBOA

# Ikuskizun bikaina Doneztebeko herri kirol errekorren jaialdian


Munduko bi errekor hobetu zuten Joxe Bikondoa eta Iñaki Perurenak eta Nafarroako bertze lau marka hobetu ziren

Abenduaren 4ean ospatu zen Doneztebeko frontoian Nafarroako Herri Kirol Federazioak urtero antolatzen duen herri kirol errekor jaialdia. Atzerapen pixko batekin eta frontoia jendez gainezka zegoela hasiera eman zitzaion jaialdia-ri kirolarien aurkezpenarekin. Aurkezpena bukatutakoan arpanlariak, Pikabea anaiak, atera ziren plazara. Kanaerdiko bati 25 korte 16'08" baino lehenago moztea zuten erronka eta errex gairidit zuten, 15'17"tan egin baitute beren lana. Arpanlariak lanean ari zirela, Txaro Zubietak kozkor bilketan ez zuen errekorra egin bi segundugatik.

25 kiloko txingekin Lourdes Telletxeak 308 metroan ezarri zuen errekorra. 100 kiloko txingekin berriz Patxi Bergara errekorren atarian gelditu zen.

Lasto altxatzen oso ongi ibili zen Etxarte, baina ezin izan zuen errekorreko 16 jasoaldiak gairiditu eta 13 bertzerik ez zuen lortu. Ingudearekin Loiarate aritu zen. Marka haustea zaila bada ere (minutu t'erdiz 86 jasoaldi) Loiarate gogor aritu zen eta 85 jasoaldi burutu zituen.

Patxi Larretxea aritu zen 100 kiloko harria jasotzen eta lehenagoko marka 27 altxaldikoa bazen, Larretxeak 29 egin zituen errekor berria eginez.



**Iñaki Perurenak eta Joxe Bikondoak munduko errekorrak hobetu zituzten. Lesaka eta Amaiurren arteko tiraldia ikusgarria izan zen**

Proba konbinatuan, Bera eta Ultzamako taldeak aritu ziren erlojuaren kontra baina ez zuten markarik hautsi (Ultzamak 17'23" eta Berak 18'15").

Aizkolariek hautsi beharreko marka ere ez zen nolana hikoia baina berrero Mindegiak ia minutu bat jeitsi zuen (11'31").

Sokatira exhibizioan,

Amaiurko mutilak nagusitu ziren Lesakan kontra bertz minutu iraun zuen tiraldi baten ondotik eta Berako neskak Berriozarkoak gairiditu zituzten.

## Munduko bi errekor

Munduko errekorreko bi probak ziren ikusmin gehien sortu zutenak eta bi kirolariek ederki justifikatu zuten ikusmin hori.

Lehenengoa, aizkora alturan izan zen. Joxe Bikondoa, 10 metro t'erdira zegoen enborrera igo eta goiko puntan korte bat egin zion 45 ontzetako enborrari. Kirolari honen trebetasuna azpimarratzekoa da, batez ere 47 urte dituela kontutan hartzen badugu.

Eta azkeneko errekorra Iñaki Perurenaren eskutik etorri zen. Iazko jaialdian 210 kiloko harri borobila altxatu bazuen, aurten kilo bat gehiago erantsi eta altxatu zuen.

## ZINEA

### LEITZA

- ▶ **Abenduak 16**  
'La lista de Schlinder'.
- ▶ **Abenduak 18**  
'Los tres mosqueteros' eta 'La lista de ...'.
- ▶ **Abenduak 23-25**  
'Maverick'.
- ▶ **Abenduak 30 eta urtarrilak 1**  
'Misterioso asesinato en Manhattan'.

### DONEZTEBE

- ▶ **Abenduak 17-18**  
'Demolition Man'.
- ▶ **Abenduak 25**  
'Todos a la carcel'.
- ▶ **Urtarrilak 1**  
'Huevos de oro'.

### BAZTAN

- Baztandarren Biltzarren Gazteri Sailak antolatua zinea herri guzietan.
- ▶ **Abenduak 18**  
Ziga eta Anizen.
  - ▶ **Abenduak 23**  
Gartzain eta Lekarotzen.
  - ▶ **Abenduak 24**  
Almandoz eta Berroetan.
  - ▶ **Abenduak 25**  
Arizkun eta Elizondon.
  - ▶ **Abenduak 30**  
Elbete eta Iruritan.
  - ▶ **Abenduak 31**  
Ornoz-Mugairin.
  - ▶ **Urtarrilak 1**  
Arraioz eta Amaiurren.
  - ▶ **Urtarrilak 6**  
Elizondon.
  - ▶ **Urtarrilak 8**  
Azpilkueta eta Erratzun.

## ERREZETA



### Faisaia mahatsekin



Jose Gabriel  
PIKABEA  
Zalain  
Jatetxea  
•BERA•

#### Osagaiak (bi lagun)

• 2 txalota • 50 gr. gurin • 100 gr. barazki (tipul, porru, azenario eta apioa) • Dl. erdi Armaganc • litro laurden txanpain • 2 Dl. espainiar saltsa edo kontsomea haragi pastilla kontzentratua gehituz • 100 gr. mahats zuritu oporto ardoan edukiak • Dl. erdi nata •

#### Prestatzeko manera

Faisaiari hanka, hegal eta burua kendu. Sutik pasatu luma arras-

toak kentzeko. Xingar zuria paparraren gainean jarri, lotu eta labean sartu gurinarekin 30' 180ºtan. Paparrari hezurra kendu eta bi izterrekin batera txalota eta gurinaz egindako fondoaren gainean jarri. Gelditzen diren hezurak zati ttikitant puskatu eta lehendik kazulan pasatutako barazkiei gehitu. Armagnac-az flanbeatu eta txan-

painarekin busti. Saltsa loditzen utzi eta espainiar saltsarekin bete. 20' egin ondotik iragazi. Saltsa faisaiari gehitu, mahatsak eta esnegainarekin. Egosten utzi eta beroa serbitu.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.700 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 148 pzta/kilo
- **Zerramak**: 120 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**:  
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal  
Extra ..... 600  
1.koa ..... 580  
2.koa ..... 550

#### Urruxak: Pzta/Kg. Kanal

Extra ..... 610  
1.koa ..... 590  
2.koa ..... 560  
Oharra: Precio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

#### •Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak**: urruxak 23.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.

**Mestizoak**: urruxak 38-42.000 eta idixkoak 5055.000 pzta.

#### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,  
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...




### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza  
• **Bertako sagarrondo** 930.  
• **Udareondoa** 930 pta.  
• **Gereziondoa** 1.050 pta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.
- **Valentziar tipula** zient. 250.
- **Letxuga** zientoa 400 pta.
- **Azelga** zientoa 400 pta.
- **Pepino** sorta 25 pta.



## KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



## LIBURU ERRESEINAK



### Emakume demonioa

Jim Thompson  
Donostia, Elkar, 1994.  
224 orrialde

Emakume demonio asko azaltzen dira Thompsonen nobeletan, agian gehiegi. Baina ez pentsa Thompsonen pertsonaien artean bereizketarik egiten duenik haien barren ilunak agerian uztean. Gizonezkoak baino okerragoak direla erran daiteke: lapur ziztrin, pailazo, psikopata, erditxororgerel, antiheroez jositako sail amaigabea osatzen duen jendailatik kostea egiten da garbi bat aukeratzea. Chandlerrek erran zuen Hammettek krimena lorontzi veneziarretik atera eta bere benetako lekuan jarri zuela, kale gorrian alegia. Thompsonen krimena kale beroetatik atera eta giza-kiaren bihotz izoztuan jarri duela, benetan dagokion lekuan, erran daiteke.

Liburuok eskuratzeko Bera, Doneztebe, Elizondo, Leitza eta Lesakako liburutegi publikoetara joaten ahal zarete.

### Azken nobedadeak

#### Otto Pette

Anjel Lertxundi  
Alberdania, 458 orr.

#### Bruce Springsteen adiskidea

Kevin Major  
DDB, 161 orr.

#### Beldurra pasa nahi baduzu

Angela Sommer-Bodenburg  
DDB, 77 orr.

#### Are beldur gehiago pasa nahi baduzu

Angela Sommer-Bodenburg  
DDB, 70 orr.

#### Franzen oporretako kontuak

Christine Nostlinger  
DDB, 55 orr.

#### Lagun amestua

Enrique Perez Diaz  
DDB, 118 orr.



### Eta banpiro bihurtu nintzen

Andreu Martin  
Bilbo, Desclee de Brouwer,  
1994. 232 orrialde

Ilya mutiko arrunta zen, halaxe behintzat uste zuen berak, baina goiz batean hilik zegoela ohartu zen. Areago harritu zen, jadanik hilkutxan zegoelarik familia osoa negarka bere ondoan berpiztu zenean eta banpiro zela konturatzean. Ilya gizagaixoak zaila du bizi izatea banpiroen ohiturak ezagutu ez, eta gainera, ezin da erran odolzurgatzea atsegin duenik. Egunak pasa ahala, hobeki sentitu eta bere lehen biktima eta gutiziatuena, Tatiana, lortzea izanen du helburu. Elaberri honek, Lurdes Auzmendik itzulia, estilo garbi eta zuzena dauka, umorea falta gabe. 14 urtetik aurrera.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

Abenduaren 2tik 31ra. Arizkunenea Kultur Etxean 'Artea Mende amaieran' margo eta eskultura lanen erakusketa. Artistak: Patxi Buldain, Jose Urdin, Natxo Barberena, Koldo Agarraberes, Arturo Nabaz, Pablo Juarros, Oskar Paternain eta Carlos Servent.

## LEHIAKETAK

### LESAKA

Abenduaren 24ean. Eguedian plazan Olentzero eta jaiotza lehiaketa.

### LESAKA

Bertso-paper lehiaketa. Bortzirietako Bertso Eskolak antolatua. Lanak, otsaila baino lehen aurkeztu behar dira. Tfnoa: 637891.

## GUARDIAKO BOTIKAK

Abenduaren 12tik 18ra. Etxalar, Ituren, Irurita eta Goizueta.  
Abenduaren 19tik 25era. Arantza, Narbarte, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.  
Abenduaren 26tik urtarrilaren 1era. Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leitza.

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

### LESAKA:

Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitorenpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 @ra

## ETXEBIZITZAK

**BERA.** Bajera bat salgai Agerra auzoan. ☎ 630821.

**LEGASA.** Pisu amueblatu alkilatzeke. ☎ (943) 614735.

**Baztan-Bidasoa** inguruan borda edo baserria erosiko nuke. ☎ 396502 (Lurdes).

**LEGASA.** Etxea salgai herrian bertan, 240 m<sup>2</sup>ko baratzearekin. ☎ 450652.

## DENETARIK

**Neska** behar da Iruñean pisu bat osatzeko. ☎ 581177. Deitu asteburuetan.

**Mobileta** gidatzeko baimena galdututa Etxalar edo Lesakan. Aurkitu duenak 635041 @ra deitu (Javier).

Etxeko erreformak dire-

la eta, 5 berogailu elektriko eta gasezko sukaldaria eta kalentadorea salgai. Banaka edo denak batera, prezio onean. ☎ 610794 edo 510204.

**Sukalde** kalefaktora salgai. 'Hergon' markakoa da. ☎ 631380.

**Olivetti CT606** idazmakina elektronikoa salgai. Memoriaduna da eta estreatu gabe dago. ☎ 580570.

**Miniorgano SK200** eta bere altaboza salgai. ☎ 510250.

**Kartelak,** afitxak, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

**Edozein gisako** mobleak eta nekazal tresnak erosiko nituzke, etorkizunean museo bat osatzeko. ☎ 451518.

**Gaztelun** ganbara eta sotoa salgai. ☎ 451518.

## IBILGAILUAK

**Autoak** eramateko 'Voca' erremolkea salgai. Guterabilia. Galbanizatua, baskulakorra eta freno edo galgaduna. 375.000 Pta. ☎ 631157.

**Renault 11 NA-N** salgai. Prezio onean. ☎ 451596.

**Iveco Daily 30.8** furgoneta salgai. NA-AH. 1.650.000 Pta. ☎ 268343-510500.

**Suzuki Vitara,** 3 urtekoa, 32.000 km. rekin salgai. ☎ 630289 (7etatik aitzinera).

**Honda CR** salgai. Egoera onean. ☎ 943-620552 (Roberto).

**Yamaha SZR 600R,** Genesis motoa salgai. NA-AK, 91koa. Bi kasko, moto-trajea, botak eta eskularruak oparitutako nituzke. ☎ 630793 (2-2,30).

**Isotermo** kajoia, Frigicoll hozkailu ekipoarekin salgai. 3.500 Kg. arte edozein ibilgailurendako baliagarria. Errebisatua. ☎ 631157.

## LANA

**20 urteko neska** dendan, haurrak zaintzen edo taberna batean lan eginen luke. ☎ 450356.

**Ordenadorez** edo makinaz lanak, bai euskaraz, bai erdaraz pasatzen ditugu. ☎ 637281 (Idoia). 9etatik 1etara eta 5etatik 8etara.

**Jostun** lanak egiten ditut: kremaierak aldatu, galtzen azpikoak hartu... Berako Iturlandeta 6, 1.A (Molineroren gainean).

## AZIENDAK

**Baserriko oilaskoak** salgai. ☎ 387052.

**Katakumea** salgai, perstiar arrazakoa. Ongi zainduko duen norbaitek eramatea nahiko genuke. ☎ 631331.

**Zakurkumeak** salgai, brako aleman arraza garbikoak, 18.000 pezetatan. ☎ 451518.

**Zakur ttiki** bat oparitzeko daukat eta etxean hazitako **6 ahate** eder salgai. ☎ 514213 (Goizueta).

## AGURRAK

**Leitzako Jexus** Saralegiri. Bere urtebetetze egunean zorionak. Lagun baten partez.

**Leitzako Yolandari:** mila esker bihotz bihotzez nerregatik egin duzun guztiatik.

**Epa bixki:** Hartuko dugu sagar kopa bat? Ez, hobe sagar likor botila. Badakizu, usategietako miradorean. Badituzu bost duro? Bixki.

**Iruñako Golem** zine ondoan nere karnetak aurkitu zutenei, mila esker karnetak etxera bidaltzeagatik. Nerea Astibia (Leitza).

**Etxalarko attatto** eta osabarentzat: otsoak, bakarrik lau hankako ikusten ditugu. A! kaso eman oilandekin. Bixkiak.



## ZALAIN MOTOR



© eta Faxe 63 11 57 • Telefono mugikorra (908) 77 80 23 • BERA

Volkswagen Polo Classic / NA-P  
100.000 Km.....220.000 Pta.

Opel Kadett / SS-Z  
1.6 S.....520.000 Pta.

Ford Orion 1.6 / SS-AH  
56.000 Km.....725.000 Pta.

Ford Orion 1.3 / SS-T  
56.000 Km.....725.000 Pta.

### DIESEL

Opel Corsa / NA-U  
72.300 Km.....550.000 Pta.

Ford Escort 1.8 D / NA-AB  
62.300 Km.....825.000 Pta.

Ford Escort / SS-U  
1.6 D.....375.000 Pta.

Ford Orion / SS-U  
1.6 D.....375.000 Pta.



Ford Fiesta 1.1 / NA-AB / 60.000 Km. / 710.000 Pta.


**Aukera zabala  
Diesel Merkeetan**



Suzuki Vitara JA / NA-AF / 30.000 Km. / 1.200.000 Pta.

**Auto errebisatuak eta  
garantia osoak**

AUTO GUZTIETAN, TRANSFERENTZIAREN KOSTEA SARTUA DAGO PREZIOAN



# E Z K A L O

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna • API 129

INFORMAZIOA: 45 15 18 Tfnoan • DONEZTEBE  
Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

## ETXEAK

**Sunbilla.** Baratzedun etxea salgai. Berritu beharra.

**Igantzi** Bi familiendako etxea salgai. Lorategi pribatuarekin. Jubilatuetako egokia. Prezio negoziagarria eta baserri batekin trukatzea onartuko nuke.

**Narbarte.** Etxe zaharra bere baratzearekin salgai. Berritu beharra. Nekazal etxerako egokia. 8.800.000 Pta.

**Donamaria.** Txaleta salgai Igurín auzoan. Ordaintzeko laguntzak.

**Zozaia.** Etxe habitagarria salgai. Bi familiendakoko egokia.

## BORDAK

**Azpilkueta.** 8.000m<sup>2</sup>ko lur eremua duen borda salgai.

**Ziga.** Bista ederreko borda salgai.

**Berroeta.** Borda salgai 6.000 m<sup>2</sup> ko lur-eremuarekin.

## PISUAK

**Legasa.** Lau bizitzako etxe batean 100m<sup>2</sup> pisua salgai Zola eta leihoak gaztaintzekoak. Mobleztatua. 9.500.000 pta. Nahi izanez gero, hilean 45.000 pta.tan alkilatuko genuke.

**Irurita.** Hotel Baztan ondoan pisua salgai garaje eta ganbararekin. Prezio negoziagarria.

**Doneztebe.** 'Amaiur sukaldeak' dendaren gainean, luxuzko pisua kalefakzioa, ganbara eta sukalde ekipatuarekin salgai. 9.500.000 pta. Nahi izanez gero, hilean 45.000 pta.tan alkilatuko genuke.

**Legasa.** 90m<sup>2</sup> pisua salgai Opoka ostatuaren gainean. Mobleztatua, 40m<sup>2</sup>ko ganbara ura eta argindarrarekin pisuaren gainean eta 13m<sup>2</sup>ko garajearekin 9.500.000 pta. Nahi izanez gero, hilean 45.000 pta.tan alkilatuko genuke.

## PISUAK

**Etxalar.** Herriaren erdi-erdian pisua salgai. Aukera bakarra.

**Sunbilla.** Pisua salgai 48m<sup>2</sup>ko sotoarekin. Nahi izanez gero bakarka ere salduko nituzke.

## BAJERA KOMERTZIALAK

**Lesaka.** Pabilioi industrialak saltzeko edo alokatzeko.

**Doneztebe.** Aparanen pabilioiak salgai. 150m<sup>2</sup>tik gorakoak. 59.000 Pta./m<sup>2</sup> Datorren urtean prezioz altxatuko direnez, anima zaitetz bisita egitera.

## INDUSTRIA-ORUBEAK

**Igantzi.** Berrizaun industrialdean industri-pabilioiak egiteko lur orubeak salgai.

## BASERRIAK

**Etxalar.** Baserria, borda eta lurrekin salgai. Tfnoa, ura eta argindarra. Hiru familiendako egokia. Nekazal, Sagardotegi, Osasun etxe... Xarma haundiko etxea.

**Arantz.** Baserria salgai. Ura, argindarra eta telefonoa. Prezio negoziagarria.

**Etxalar.** Zimeldi baserria salgai. Bidea, ura, argindarra. Eguzki aldea. 5Ha.ko eremua.

**Almandoz.** Baserri berritua salgai. Hiru hektareako lur eremua.

## ALOKAIRUAK

**Elizondo.** Mobleztatu gabeko pisua alokatzen dut. 35.000 pta. hilabeteko.

**Igantzi.** Pisu mobleztatua garaiekin 40.000 pta. hilabeteko.

Zure mahaiaz  
presumitzeko eta...



Portzelanazko Baxera Italiarra:

275.000 pta. 3 hilabeterako.

375.000 pta. 2 hilabeterako.

Nomina edo pentsioa helbideratua izanda:

250.000 pta. 3 hilabeterako.

350.000 pta. 2 hilabeterako.

Manacor Perla Jokua:

175.000 pta. 2 hilabeterako.

Nomina edo pentsio helbideratua izanda:

150.000 pta. 2 hilabeterako.



... dotore jarri nahi baduzu  
zatoz Euskadiko Kutxara

Gainera, Gabonetako Loterian 200 Pta.ko partizipazioa oparituko dizugu.



## ARROPA

Soinekoak, galtzak, 'pitilloak', gonak, jertseak, jakak...

## OSAGARRIAK

Gerrikoak, pañueloak, pultserak, belarritakoak...

## OPARIAK

## AUKERAKO MOBLEAK

Mesanotxeak, aulkiak, komodinak, kajonerak...

Parrokia karrika • ☎ 450883 • DONEZTEBE

# MARTIKO

Gastronomia gustoko baduzu,  
eguberrietako otorduetan MARTIKOrekin batera urrun ailegatuko zara



## AHATE PAPARRA

### Osagarriak:

Ahate paparra, gatza, piperrautsa eta saltsa lagungarria norberaren gustora.

### Prestatzeko modua:

Paparrari gatza eta piperrautsa bota. Zartagia su motelean berotzen jarri eta bertan paratu paparra gantza duen aldetik. Utzi gantzaren erdia urtu arte, eta buelta eman ondotik, minutu terdi kontu beste aldetik egiteko. Sutik kendu eta xerra finetan moztu. Egin eta berehala ateri platerera, argazkian ageri den modura eta nahi den saltsa lagungarriarekin.

### SALTSA PRESTATZEKO MODUA:

Paparrak xerratzerakoan ateri den salda, haragi fondoa egiteko erabiliko dugu ardo pixka bat eta fruta pasekin. Osagai guztiak ontzi batean jarri, utzi egosten eta nahi eguzun loditakuna lortu denean listo!